

GUaiXE.eus



Munduko 3Dko arku jaurtiketan Iriarte txapeldun



Kirolak >> 12

Uharteko zubizaharretik 3.500 kilo baino gehiagoko ibilgailuak ezin izanen dira pasa. Zubiaren egoera aztertzen ari da udala



Sakanerria >> 7



Ikasleek atzo mustu zuten Andra Mari ikastolaren egoitza berria.

Ikasteko garaia

>> 2



Klinikak bere jakintza partekatuko du

>> 7



Bertako Ganadu Azoka, igandean, Irurtzunen

>> 3



Data aldatuta, gaur hasiko dira Altsasuko festak

>> 8/14-15

Uda-ikastaroko ondorioak Nafarroako planerako >> 5

Urbanan 1936an eraildakoak gogoan >> 6

Altsasuko 86. txirrindula proba, asteartean >> 12



ZORION agurrak

Argazkiak emateko lekuak: • Altsasu: Foru Plaza 23-1 • zorion@guaixe.eus
• Ordainketa, Guaixeren bulegoan edo ondoko kontu zenbakian egin daiteke:
3035 0018 47 0181012564

ARGAZKIAK ASTEBETE LEHENAGO EKARRI, TOKIRIK GABE GELDITUKO ZARA BESTELA!

Eta orain... 4 euro argazkia eta Pirritx, Porrotx eta Marimototsen opari-papera doan! Bazkideek 3,50 euro!



- Leihoen, ateen eta kontraleihoen fabrikazio eta muntaketa
- Balkoien eta terrazen itxura
- Kolore guztietako mallorkinak
- Konpromezurik gabeko aurrekontua

Ongi pasa festetan!

info@dekovennavarra.com • www.dekovennavarra.com

Ibarrea industrialdea, 9 pabiloia • ALTSASU • Tel./Faxa: 948 468 360 • Telefono mugikorra: 690 641 860



Ametz
ZORIONAK potxola!
Zure lehenbiziko urtean amona, Mario, Ainhoa eta Naroaren partez. Muxu asko.



Luna
Gure etxeko dantzariak 7 urte bete ditu. ZORIONAK eta urte askotarako. Ilargiraino eta buelta maite zaitugu.

irailak

11-17

Sakanan antolatzen diren ekitaldien berri emateko: gutunak@guaixe.eus

Bakarrizketa

Así es la vida. Irailaren 11n, ostiralean, 22:30ean Olatzagutiko Barandi tabernan. **Kike Biguri.**

Mendi irteerak

Dorrao-Treku-Arteta-Ultzurrun. Irailaren 13an, igandean, 7:00etan Dorraotik. **Sakanako Mendizaleak.**



Bizikleta irteerak

Altsasu-Goñi-Altsasu. Irailaren 12an, larunbatean, 9:30ean Altsasuko kultur gunen paretik. 110 km. **Zikloturista taldea.**

Bestelakoak

Arakil eta Irurtzango 3. bertako ganadu azoka. Irailaren 13an, igandean, 10:00etatik aurrera

Irurtzunen.

Deialdiak

Euskal Presoak Euskal Herrira! Irailaren 11 ostiralean, 20:00etan Lakuntza, Arbizu eta Etxarri Aranazko plazetan, elkarretaratzeak.

Euskal Presoak Euskal Herrira! Irailaren 13an, domekan, 20:00etan Altsasuko plazan, elkarretaratzea.



Kier Waller Perkaz
ZORIONAK txikitxo!
Urtebete iada. Mila muxu Ingalaterra eta Euskal Herriko familien partetik.



Elorri
ZORIONAK kroketa!
Dagoeneko beste esku-txoa beharko duzu urteak kontatzeko. Ongi pasa zure egunean eta festetan. Milaka muxu.

SAKANA

Ikasteko garaia

Sakanako ikasle gehienek atzo hasi zuten ikasturte berria; asteartean altsasuarrek. Lehen eguna izatearen berritasunak sortutako negarrei eta ezinegonei, ikaskideekin berriro elkarteak edo gelako kideen nahasketa posibleak sortutako urduritasuna elkartu zaie. Sakanan ikasle gehienek D ereduan hasi dituzte ikasketak. Berritasuna Altsasuko Sagrado Corazon ikastetxeak martxan jarritako PAI programa da. Altsasun bertan sute batek Txirinbulo haur eskola txikititu zuen. Ondoko Zelandi eskola publikoaren pertsiana batzuk kaltetu zituzten garrek, baina ikasturtea normaltasunez hasteko aukera izan zuten.

Bestetik, Nafarroan LOMCE legea bete-betean sartu da indarrean, aurreko gobernuak hala lotua utzi zuelako. Beraz, DBH-



ko eta Batxilergoko ikasturte bakoitietan ezarriko da legea. Lehen Hezkuntzako seigarren mailako ikasleei, gainera, ebaluazioa egiten diete.

Ikastola berria

Joan den ikasturtean Iturmendik eskola berria mustu bazuen,

oraingo honetan eraikina mustu duena Andra Mari ikastola izan da. Utzubar txiki dermioan jaso da ikastola berria. 2 eta 12 urte bitarteko ikasleak hartu ditu, Lehen Hezkuntzako 6. mailara arte. Ikastola berria mustutzeak, jakina, haurren artean poza eta ezinegona sortu ditu.

2009ko Nafarroa Oinezeko eta ondoren egindako lanaren etekien emaitza da ikastola berria. Lau solairu ditu. Sotoan, jantokia, sukaldea, psikomotrizitate gela, gorputz hezkuntzako gela, aldagelak, soin hezkuntzako irakaslearen bulegoa, kirol materiala eta bestelakoa gordetzeko bildegia eta berogailua daude. Lehen solairuan idazkaritza, zuzendaritza, haur hezkuntzako gelak, komunak eta espazio zabal bat izanen dira. Gelek patio estali-rako irteera dute.

Bigarren eta hirugarren solairuek Lehen Hezkuntzako gelak hartu dituzte. Han daude liburutegia, ordenagailu gela, plastika gela, TGD gela, logopediarako gela, ingeleseko gela eta Lehen Hezkuntzako irakasleen gela. Kanpoko aldean, natur parkea, frontoia eta kirol kantxa du.

Bazkideek deskontua

Bakarra: **4,00€**

Bazkideak: **3,50€**

Ostiralero
SAIOA
9:30etan

Gaurko gaiak:

- Altsasuko festak
- Otsoportilloko omenaldia
- Irurtzango eta Arakilgo azoka

Errepikapenak: 14:00 - 19:00

Esataria: Maider

107.3 FM
beleixe
www.guaixe.eus-en ON LINE

KIMATZEA: Altsasuko udaletxe pareko zuhaitzak kimatu zituzten eta haietako bat moztu egin zuten herenegun. Moztutako zuhaitzak ingurukoak kaltetzen ari zela

azaldu dute udaletxetik. Aldeko eta kontrako iritzia sortu dira altsasuarren artean.

ezkaatza >>

SAKANA



Hondakinen kudeaketan kontseilariak elkarlanerako borondatea azaldu du

Departamentuak, Sakanako Mankomunitateak eta atez ateko sistema duten herriek elkarren arteko komunikazioa eta elkarlana sendotzea adostu dute

Isabel Elizalde Arrastia Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazioako kontseilaria Nafarroako Unibertsitate Publikoaren uda-ikas-taroaren hasiera ekitaldian parte hartzeraz etorri zela baliatuta, hondakinen kudeaketaz hitz egiteko zenbait udal ordezkari harekin batzartu ziren (Ainara Aiestaran, Uharteko Arakilgo alkatea; Eneka Maiz, Etxarri Aranazko alkatea; Gurutze Rodrigez, Olatzagutiko alkatea eta Aitor Karasatorre, Sakanako Mank-eko lehendakaria).

Elizaldek gobernuaren eta toki erakundearen arteko elkarlana bultzatzeko borondatea azaldu zuen. Bilkuran kontseilariak berretsi zuten hondakinen kudeaketa eta tratamendua udalen eta mankomunitateen eskumenekoak direla, eta hondakin bilketa sistema berrien inplementazioagatik Mank-i erabateko errespetua adierazi zion.

Bilkuran Nafarroako Hondakinen Kudeaketarako Plan Integralaren berrikusketaz hitz egin zuten ere. Berrikusketaren baitan herrialdean ezarritako sistema guztiak aztertu beharra agerian gelditu zen. Europako araudiak ezartzen dituen helburuak bete beharra hizpide izan zuten eta ahalik eta errefusagutxien sortzen duten sistemen alde egitearen alde agertu ziren guztiak. Hondakin organikoaren tratamendua hizpide izaterakoan Sakanan ezarritako auzo-konpost etxolak aipatu zituzten.

>> Arakil / Irurtzun

Azoka, bertako aziendari, artisauei eta ekoizleei bultzada emateko

Igandean, 10:00etatik aurrera, Irurtzunez garai bateko azoka giroa berreskuratuko du. Irurtzun eta Arakilgo herriek, salmenta zuzenean eta ekoizleen parte hartzean oinarrituriko ereduaren pausoak ematen jarraitu nahi dute.

Aurreko bi urteetako balorazio positiboaren ondoren, bueltan da Arakil-Irurtzunge III. Bertako Ganadu Azoka. "Hasieratik proposatu zen azoka eredu urtetik urtera indartzen joan da" Sakanako Garapen Agentziako Iker Manterolak azaldu duenez. "Kantitateari baino kalitateari ematen zaio garrantzia, eta hori azokan nabari da". Elkarlanean oinarritutako azoka dela ere azpimarratu du. Manterolak nabarmendu nahi izan du azoka "lehen sektorearendako eta artisauekiko, haien aktibitateari irteera emateko salmenta gunea" dela.

Belardiko Begoña Goikoetxea zehaztapena egin du: "Azoka antolatzeke irizpideetako bat da bai artisauek bai azokako postuetan dauden ekoizleak izatea, ez bitartekariak. Oso garrantzitsua da guretako. Horrek beste azoketatik bereizten gaitu". Goikoetxeak ziurtatu duenez, "guretako ez da azoka arrunt bat. Bertako produktuen eta ekoizleen aldeko aldarrikapen modu bat ere bada".

Udalak

Garai batean Arakil eta Irurtzunge ekonomia oinarria lehene sektorea zela gogora ekarri zuen Paz Gonzalez zinegotzi arakildarrak. Azokarekin sektore horri bultzada eman nahi diotela gatzigatu du. "Azoka, betidanik, arakildarren eta irurtzundarren topagunea, harremanetarako tokia izan da, eta berreskuratu nahi dugu. Horregatik, herri bazkaria antolatu dugu estreinakoz". Antolatzaileen lana eskertu eta igandean azoka bisitatzera gonbidatu gaitu Eduardo Murugarren irurtzundarrak.



Eduardo Brun, Eduardo Murugarren, Paz Gonzalez, Begoña Goikoetxea eta Iker Manterola.

Azoka

Aurreko urteetan bezala hiru espazio izanen ditu azokak: bertako abereen gunea hartuko du plazako frontoiak; azoka gardena Foru plazan izanen da eta artisauek Lizarra kalean izanen dira.

Ekoizleak

20 bat ekoizleak (zerrenda www.guaixe.eus-en) euren ekoizpena zuzenean salgai jarriko dute etziko azokan. Sakanako Belardi ekimeneko kideak dira gehienak. Ibarrean ekoizten ez diren produktuak EHNE-Bizilur ekimenaren bidez iritsiko dira. Goikoetxeak azaldu duenez, "nahi dugu jendea ohartzea erosketak bertan egitea eta bertako produktuak kontsumitzeak zer dakarren: horrekin aukeratu dugu zer nolako larreak eta basoak nahi ditugun gure inguruan". Elikadura burujabetzaren aldekoak dira Belardiko kideak. "Herriarren inplikazioa beharrezkoa da. Denon ardura da". Halako azokek, bestalde, ekoizleei herritarrekin harremanetan egoteko aukera ematen die, euren lanbidea eta egunerokotasuna azaltzeko.

12 artisauek

Lizarra kalean izanen dira (zerrenda www.guaixe.eus-en). Arbaso elkartean biltzen diren Euskal Herriko artisauek izenean Eduardo Brunek antolatzaileei emandako aukera eskertu die. "Egindako lana bere fruituak ematen hasi da eta nabaria da azokara etorriko diren Sakanako eta Nafarroako artisauek kopurua hazkuntza". Sakanako ordezkariak joan den urteko %15etik %23ra pasako da eta Nafarroakoa %15eko gorakadarekin %46ra iritsi da.

Bertako arrazak

Plazako frontoian bertako azienda ikusteko aukera izanenda: latxa ardi arpeltz eta mutur gorriak (Aslana), Nafarroako rasa ardi (Arana) eta sasi-ardia (Sasiko), behi piriniarra (Aspina), nafar kasta eta betizua (Asbena), Auritz arrazako zaldi-behorrak (Ascana) eta Nafarroako jaka (Jacana). Aurtengo berrikuntza euskal oiloen eta antzaren presentzia izanen da (Eoalak elkartea). Goikoetxeak azaldu duenez, "ekarri nahi izan ditugu, haiek bizirik daudela eta haien atzean jende asko lanean dagoela ikus dadin".

Egitaraua

10:00etatik 14:30era Bertako abereen gunea, artisauek eta azoka gardena.

15:00etan Herri bazkaria.

Goizean

Nekazaritza lanabesen erakusketa

Soken ohiko lantzea
Motozerrarekin eginiko eskulturen erakustaldia

Belar metaren lantzea
Kale animazioa: mitologia-personaia, joaldunak, trikitilariak eta gaitariak.

Artisauek forja

Taloak
Haurrendako paper birziklatze tailerra

Irurtzunge, Arakilgo eta Sakanako turismo informazioa
Irurtzunge eta Arakilgo komertzio eta ostalarien erakustokiak.

Herri bazkaria

Txartelak 15€-tan eskuratu daitezke, gaur arte bi udaletxeetan. Igandean turismo informaziorako karpan ere.



NOMEDEJES AMEDIAS.EUS

NAFARROAKO
UDALETAKO
EUSKARA
ZERBITZUAK

IKASI ETA GOZATU EUSKARAZ
APRENDE Y DISFRUTA EN EUSKERA



Aingeru Mikeo

astekoa

Balada tristea

Etorkin bathilda anaiaren maletan ezkutaturik zihoala, beste bat Palman, 700 desagertuta Sizi-liako itsasbazterren parean... 2.000 etorkin baino gehiago hilik Mediterraneoan 2015. urtean. Hedabideetako titularrak dira, titular txikiak zenbaitetan, txiro gixajoak, afrikarren bizia balio gutxiko bihurtu baita.

Duela ez hainbeste urte, lagun

artean amorrutaz komentatzen genuen Ameriketako Estatu Batuen eta Mexikoren artean "bizkarbustien" sarrera galarazteko elektrizitate-hesi iragangaitza eraikitzen ari zirela. Ze kabroiak estatubatuar inperialistak! Orain gure mugak gaintitu nahi dituzte dohakabeko giza-gaixoek, eta milaka hiltzen dira heriotza deskribaezinez. Orain,

atea ixten diegu gosetik, itxaropen ezatik eta gerra jazarpentetik ihesi datozenei.

Aldi berean, zilegi zaigu Europako hainbat enpresek Kongon koltana harpilatzea, hangogerra ankerra xaxatuz gure mugikorrak ekoizteko, edo Etiopia, Uganda, Senegal, Ghana eta Mozambike bezalako herrialdeetan enpresa europarrek era basatian

lurrak berenganatzea, kakaoa, anana, biodiesel, eta beste monolaborantza batzuk sustatzeko. Jakina, gure kontsumo era ase-gaitza hornitzeko bertako ekonomia eta elikatzeko gaitasuna izorratuz.

Datuak datu dira: nazio gartuek nahiko baliabide eta teknologia dute munduko gizateriak pairatzen duen txirotasunari

aurre egiteko, baina borondate politikoa falta da, eta hori eliteboteredunek bahitua dute. Bitartean, herritarrok itsu eta mutu gaude.

Mugak ixtea eta polizia-presioa areagotzea ez da bidea, herrien artean harresiak eraikitzea ezin baita konponbidea izan.

Aingeru Mikeo
aingerumi@gmail.com

hara zer dien

Lotsagarria, sinestezina eta eramangaitza!!!

Europar gertatzen ari dena!

Azken hamarkadetan, balio demokratiko eta humanitarioen Europa zahar honek militariki parte hartu du une ezberdinetan, gaur egun migratzaile eta errefuxiatuak sortzen dituzten lurralde guztietan.

Ekainak 20, Errefuxiatuen eguna. Minutuero, 8 pertsona dena uzten dute ihes egiteko: bai gerrartetik, nola jarraipenetatik, nola izutik ihes egiteko. Betiko bizitza noizbait berreskuratzeko espe-

rantzan.

Izuaren izua.

Noiz arte?

Hainbeste sufrimendu.

Haien lurraldeak bonbardeatu eta desegonkortu ondoren, beste aldera begiratzen dugu, eta orain kezu gara.

Sortu diegun gerrateetatik ihesi doazelako, eta gurera datoze-lako, bizi hobea baten bila.

Irudiak, gero eta gogorragoak dira.

Txalupetan ihesi, itota hiltzen

diren gizakiak. Kamioietan ihesi, itozten direnak. Ustez, ziurragoa den tokitik ihesi, jipoituak direnak. Haien lurraldean gertatzea erabakita, bonbardeatuak direnak.

Ezinbestekoa suertatzen da salaketaren ahotsak batzea, milaka eta milaka pertsonen oinarrizko eskubideen urraketaren aurrean (libre mugitzeko eskubidea, eta oinarrizkoena, duintasunaren eskubidea, bizi duin bat izateko eskubidea).

Animalien gisa erabilia, joak, bultzatuak, atxilotuak, itxituak, irainduak ez izateko eskubidea.

Bitartean, balio demokratikoak oihukatzen dituen Europa bera, izu eta prebentzio sentimendu bat sortu nahian dabil, "oleada", inbasio... bezalako hitzak erabiliz migrazio-errefuxiatuetaz hitz egitean.

Badirudi ahaztu nahian dabil Europa bera izan dela migratzaile gehien sortu dituen lurraldea.

Historian atzera begira ahaztu al zaigu migrazioen arrazoiak berdinak direla? 50-60-hamarkadan, lan bila, bizi baldintza hobea bila... eta 39ko gerrartetik ihesi munduan barrena?

Ez al gara ba honetan ere uste baino berdinagoak? Ia gurera datozen gizakiak hartzeko garaian ere duintasunean berdintzen garen, eta sufrimendu latz honi bukararen hasiera ematen diogun.

Bego Zestau
Mank, Immigrazio Zerbitzua

gora/behera



Elkartasuna

Sute baten moduko ezbeharraren ondoren ugari jaso du Altsasuko haur eskolak.

36 gehiago

Lezean dauden dozena bat sakandar gehiago daude oraindik identifikatzeko.

objektibo tik



Zuhaixka eta murala:

Sakanako Klasikoen serieko bat. Berdin da herria. Festa edo ospakizunen ondoren zuhaixkak hautsita agertzea. Etxerako edo autorako bidean muraleko Amalurra defenda dezagun leloa irakurri ote zuen?



Ezpondak, zertarako?

Urak ez du galdetzen, bere bidea egiten du. Ura bideratzeko ahalegina egin daiteke, ordea. Esaterako, bidetik ezpondarako erretanak eginez. Inbertsioa gehiago irauraraz dezake. Klasiko bat Sakanan.

objektibo tik: gutunak@guaixe.eus

Guaixe  

Erredakzio burua: Alfredo Alvaro Igoa • guaixe@guaixe.eus
ERREDAKZIOA: Maider Betelu Ganboa • kirolak@guaixe.eus
MAKETATZAILEA: Ainhoa Etxeberria Pikabea
PUBLIZITATEA: Maria Saez de Albeniz • publizitatea@guaixe.eus
eta Eneida Carreño Mundiñano • publi@guaixe.eus
ERREDAKZIO LAGUNTZAILEAK: Maialen Huarte Arano, Eñaut

Agirrebengoa Apaolaza eta Larrait Amadoz Lazkano
ZUZENTZAILEA: Felix Alzelai
ARGITARATZAILEA: Bierrik Fundazioa. Foru plaza 23-1. 31800 Altsasu • 948 564 275 • 948 562 107 • 618 882 675
KOORDINATZAILEA: Goizeder Anton Iturralde • bierrik@guaixe.eus
DISEINU ZERBITZUA: Guaixe Komunikazioa • Amaia Amilibia Salgado • argi@guaixe.eus
ADMINISTRAZIOA: Gixane Andueza Goikoetxea • zorion@guaixe.eus

LEGE GORDAILUA: NA-633/1995
TIRADA: 3.200

LAGUNTZAILEAK:

BAZKIDEAK 

Mank
s a k a n a

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikako Salburuordetza

BI LOTE ENKANTEAN: Ziordiko Udalak bi baso aprobetxamendu saldu nahi ditu 97.350,03 eurotan. Urdalur, Lasoroeta, Itzasorota eta Sietekorrlen dagoen lehena-

gatik 69.315,71 euro eskatu ditu eta bigarrenagatik 28.034,32 euro. Azken hori Ir-txipin eta Etelantegin dago.

sakanerria >>

SAKANA

Gazteak euskarari buruz hausnartzeko gonbitea

Etxarriko gaztetxean egingen da eta gazte sakandarrak izena ematera deitu dituzte

Etxarri Aranazko Gazte Asanbladak Sakanako Mankomunitatearen Euskara Zerbitzuarekin batera, ibarreko gazteei zuzendutako euskararen inguruko hausnarketa saioak antolatu dituzte. Tailerraren helburua gazteek euskaraz egiteko oztopo, korapilo edo beldurrak uxatzea da eta, aldi berean, aurreiritziak apurtzea eta argudio berriak bar-

neratzea. Saioteko parte-hartzaileek hizkuntzak kokatu, norberaren portaera ulertu, euskaraz egiteko argudio gehiago barneratu eta norberaren portaeraren ondorioak ezagutzeko aukera izanen dute.

Emun-ek gidatuta, hiru orduko hiru saio izanen dira: irailaren 19an eta 26an eta urriaren 10ean, larunbatarekin, 10:00etatik 13:00etara, Etxarriko gaztetxean. Bideo, aurkezpen eta talde dinamiketarik abiatuta, saio arinak,

Izen-ematea

Irailaren 16rako Etxarriko Xapatero tabernan edo Sakanako Mankomunitateko Euskara Zerbitzuan (948 464 840 / euskara@sakana-mank.com). Gehienez 15 parte-hartzaile izanen dira.

parte-hartzaileak, dinamikoak eta erakargarriak egingen dituzte.



Bi gazte hizketan, Etxarri Aranatzen. ARTXIBOA



Markotegik abiarazi zuen ikastaroa.

Turismo komunikazioan trebatzen

Bidelagun turismo elkarteak antolatutako turismo komunikazio ikastaroa herenegun hasi zen. Hartan izena eman duten 12 pertsonen Sakanaren kultura eta natura ondarea ezagutu eta hori turismorako erakargarria izan dadin komunikatiboki nola landu ikasiko dute. Ikastaroa atzo hasi zen. Ezpileta elkarteko Mikel Markotegik Sakanako kultura ondarearen berri eman zuen. Sakanako historiaren errepaso eginez, turismorako interesagarriak izan daitezkeen ondareko elementuen aipamena egin zuen. Heldu den asteazkenean Mirua enpresako Daniel Torrente ibarraren natura ondareaz ari-tuko da. Inguruko mendiak, hariztiak, turismoa eta naturaren babeserako praktika onen berri emanen du, besteak beste. Azken lau saioak, irailaren 23, 30 eta lastailaren 7 eta 14koak, Rufino Lasaosa komunikazio adituak emanen ditu. Sare bidezko komunikazio estrategiak, on-line marketinga eta beste ezagutaraziko dituzte, sarean ikusgarritasuna irabazteko.



Hondakin kudeaketa gogoz

Uda-ikastaroan parte hartu duten teknikari eta arduradunek jasotako eta Europako Batasunetik datorren araudia uztartzeko bitartekoak jaso dituzte

Altsasuk asteartean eta asteazkenean hartu duen ikastaroaren balorazio "ezin hobea" egin du Nafarroako Unibertsitate Publiko-ko (NUP) nekazaritza ekoizpenerako irakasle Natxo Irigoien Iriarte antolatzaileak. Ekonomia zirkularraren sozio-ekonomia eta ingurumen aukerak hondakin kudeaketari eta materia organikoari aplikatuta uda-ikastaroa "oso parte-hartzailea izan da eta proposamen ugari sortu dira. Entzundakoa praktikan jartzeko gogoekin gelditu da jendea".

Isabel Elizalde Arretxea Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazio kontseilaria bertan zela mustu zen ikastaroa. Hartan parte hartu duten pertsonen hondakin kudeaketan Italia, Katalunia, Galizia eta Nafarroan garatutako esperientzien berri jaso dute. Horrekin batera, hondakin kudeaketak sortzen dituen ingurumen eta sozio-ekonomia aukeren berri jaso dute ere. Urte akaberarako Europar Batasunak hondakin gaikako bilketa %75eko izatea eskatuko duela gogorarazi digu NUPeko irakasleak.

Aukerak

Irigoienek nabarmendu duenez, ikastaroan izan ziren "arduradun politikoendako aberasgarria izan da. Europatik heldu diren arauak indarrean jartzeko abiapuntua izanen da". Esan digunez, "ekonomia zirkularra pil-pilean dagoen gaia da" eta, horregatik, sortu du uda-ikastaroak halako interesa, azaldu digu Irigoienek; eta gaineratu duenez: "aukera asko ditu eta asko entzunen dugu honetaz hitzegiten".

Biegunetan zehaztutako ondorioetako bat ingurumen eta gizarte politiken arteko uztartzea izan da. Kanpotik etorritakoak Nafa-



NUPen ikastaroak jakin-min handia sortu zuen eta 125 parte-hartzaile izan ziren.

NUP Telebista

Uda-ikastaroko hitzaldi guztiak www.unavarra.es-en ikusgai eta deskargatzeko moduan jarriko dituzte aurki, UPNA TV atalean.

arroako Emausko Traperoen jardunarekin harrituta gelditu ziren. Bi arlo horiek uztartzeko aukera bat aipatu digu Irigoienek: "Nafarroan administrazio publikoak obra eta zerbitzuen kontratuen %6 ekonomia sozialeko entitateekin egin beharra du. Gaur egun %2 besterik ez da. Horretan sakontzeak interes sozialeko proiektuak aurrera atera eta ingurumenean eragin egokia ekarriko luke".

Sakana & Europa

Parte-hartzaileek Sakanan egiten den hondakin kudeaketa sistema ezagutzeko aukera izan dute. Haietako 45ek, esaterako, Irurtzongo auzo-konpostagailuen martxa nolakoa den hura kudeatzen duen boluntario baten bidez ezagutu zuten atzo. Irigoienek azaldu digunez, "Sakanaren kudeaketa eredu-garria da eta Europar lekurik aurreratuenetan dutenaren pareandago". Ibarrean ezarritako hondakin sistema Europar "oso zabal-

Ondorioak

Nafarroako Hiri Hondakin Plan Integral berria prestatzen hasia da Nafarroako Gobernu eta Altsasuk uda-ikastaroko itxieran adostutako 10 ondorioak hari helaraziko zaizkio planaren garapenean kontuan izan ditzen. Planaz arduratzen den departamentuko Ingurumen Kalitateko buru Pedro Zuazo ondorioak adostu ziren eztabaidan izan zen eta kontseilariak berak ondorioak bidaltzeko eskatu zien antolatzaileei.

1. Toki berrikuntza eta garapenerako elementu gisa ekonomia zirkularraren gizarte aukerak baliatze beharra.
2. Gizarte eta ingurumen politikak integratu haien arteko sinergiak baliatze eta hondakinei buruzko planei eta programei ikuspegi globala emateko.
3. Kudeaketa eta gauzatze politikan herritarren parte hartzea sustatu. Ingurumen-hezkuntza-

ren aldeko apustua egin eta gizarte aldearekin lotu.

4. Hondakin kudeaketaren arlo ezberdinetan ari direnen arteko sinergiak sortu.
5. Hondakin kudeaketaren gakoetako bat prebentzioa eta hierarkia betetzea da.
6. Ekonomia linealak ingurumen kostuak bere egiteko beharra.
7. Ekonomia zirkularra sustatu eta ekonomia linealari pizgarria kentzeko kanonak, pizgarriak, tasa justuak eta bestelako tresna fiskalak izatea.
8. Epe luzeko eta epe zehatzak dituzten helburu argiak dituen lidergo eta adostasun politiko baten beharra.
9. Lurraldearen beharrei eta errealitateei egokitutako planta txiki eta xumeen moduko tresna berriak aztertze interes.
10. Proposatutako politikak eta programak gauzatzeko giza- eta ekonomia-baliabideen aldeko apustua egin.

dua" dagoela jakinarazi digu: "Katalunia 700.000 pertsona ari dira horrela eta Italian 20 milioi".

Hala ere, NUPeko irakasleak halako kudeaketa eredu-garriak bultzatzeko Nafarroan neurri fis-

kalak eta planak falta direla gaineratu digu. Aurrera begira egiteko hori eta "gizarte eta ingurumen politiken arteko sinergiak landu eta jorratu behar dira".

+www.guaixe.eus

SAKANA

Ahanturan eror ez daitezzen

Igandean 1936an erailldakoei omenaldia egin zitzaizen Urbasan. Ekitaldiak, estrainekoz, bi topagune izan zituen, saroiko gorpuzkien identifikazioak aurtengo edizioa berezi bilakatu baitzuen

Eñaut Agirrebengoa Apaolaza

Aurtengo edizioa, baina, berezia izan zen; izan ere, hainbat urte iraun dituen ikerketaren ostean, aurtengo apirilaren 1936ko irailaren 6an hil zituzten bost etxarriarrek Otsoportillon egon beharrean Urbasako sarioan zeudela jakin zen. Horren ondorioz, antolatzaileek omenaldiaren topagunea bikoiztea erabaki zuten, eta Otsoportillon eta Urbasako sarioan ekitaldi bana egin zen.

Lehen ekitaldia saroikoa izan zen. Balbino Garcia de Albizu historialari ameskoarrak azken lau urteetan egindako bideaz mintzatu zen, tartean aurkitutako oztopo eta zailtasunak azalduz. Honen hitzen ostean, dantzari talde batek aureskua dantzatu, eta lore eskaintzari ekin zitzaion.

Otsoportilloko ekitaldia jendetsuagoa izan zen. Etxarri Aranzako alkate Eneka Maizek hitz batzuekin hasizuen, eta, ondoren, Amaia Urkijok azaldu zuen gorpuzkien identifikazioa ez zelalan erraza izan, zenbait instituziotatik ez zutelako behar zen babesik jaso. Zentzu horretan, askotan limosna eske

zebiltzala zirudiela azpimarratu zuen. Urkijoren hitzen ostean, sarioan egin bezala, dantzariak aureskua dantzatu eta lore eskaintza egin zen; eta ekitaldiarekin amaitzeko, antolatzaileek bertaratutakoei auzatea eskaini zieten.

Otsoportilloko gorpuzkien identifikazioa

Omenaldiaren ostean Urkijok adierazi zuenez, saroiko gorpuzkiak identifikatzeak memoria historikolari begira urrats handi bat izan zen, baina oraindik "lan asko" dago egiteko: "Oraindik jende asko dago identifikatzeke, tartean hamabi bat sakandar, eta Urbasan dagoen sima kopurua ikusita ez da lan erraza izango". Gauzak horrela, hurrengo urratsa Otsoportillon dauden gorpuzkien identifikazioa izan beharko litzatekeela azpimarratu zuen. Ikerketa historikoa ia bukatuta dute, eta orain, Urkijoren esa-



Otsoportillon Amaia Urkijok hartu zuen hitza. Eñaut Agirrebengoa.

netan, hondakinak aztertzeke garaia da, "lan batere samurra izango ez dena". Dena den, Urkijok ez du esperantza galtzen: "Honaino iritsi bagara, aurrera egiten jarraitzeko da. Hemendik denbora batera espero dut beste aitona bat aurkitu dudala esan ahal izatea".

Instituzioen aldetik jaso beharreko laguntzari dagokionez, Urkijok baloia Nafarroako Gobernu berriaren teituan jarri zuen, esanez erakunde hau dela, Memoria Historikoen Legeak dioen bezala, identifikazio gastuak bere gain hartu behar dituen. +www.guaixe.eus

Altsasu

Haur eskolak Intxostiapuntan segiko du

Gazte-txokoko egokitzapen lanak egin bitartean, hilabetez, Txantxari ludotekan egiten dute egokitzapenaldia 43 umeek. Moduluak suntsitu zituen suteari emandako erantzuna da guztia

Altsasuko Udaleko ongizate batzordeak aurreko ostegunean bilera zuen. Txirinbulo haur eskolaren dako behin betiko egoitza lortzeko nahia mahai gaineratu zen bertan. Zinegotziak bileratik atera eta keak eta usainak gaztigatuta, 0-3 haur eskolarantz jo zuten. Hura hartzen zuten moduluak garretan



Suhiltzaileek bi ordu pasa behar izan zituzten sutea itzaltzeko.

ziren. Jakin-minak erakarritako altsasuar mordoarekin batera, udalean ordezkariak duten alderdi guztietako zinegotziek azpiegitura publikoa suak nola txikitzen zuten ikusi zuten.

Modulu haien ordezkaria izanen da Intxostiapunta gaztegunearen beheko solairua. Han bost gela egokituko dira. Patioaz aparte, mojen gimnasioa zena ere patio estali gisa erabiltzeko aukera izanen du haur eskolak. Hala ere, ikasurte honetarako konponbide

horrek behin betiko haur eskola publiko bat izateko Altsasuko Udalaren nahia ez du hoztu. Horregatik, Javier Ollo Martinez alkatea Jose Luis Mendoza hezkuntza kontseilariarekin bildu zen atzo.

Erabakiak gazteria zerbitzuan izanen du eragina. Hori egin ahal diren neurrian gutxitzeko Gazteria Batzordeko buruarekin eta Gazteria Saileko teknikariarekin biltzea aurreikusia du alkateak. Haien aldeko jarrera eskertu du Ollok. +www.guaixe.eus

SAKANA

Alkatetzako taldea pozik alderdien inplikazioarekin

Domekan hiru hilabete, ia 100 egun, beteko dira udalak zirenetik. Hori dela eta, Altsasuko Geroa Baik legegintzaldi hasieraren balorazioa egin nahi izan du.

Javier Ollo Martinez alkateak udalean ordezkariak duten alderdi guztien inplikazioa eta udal ardurak hartu izana eskertzen hasi zuen balorazioa. "Positiboa da parte-hartze hori eta alkatetzaren taldeari egunerokotasuna pixka bat errazagoa egiten dio".

Sartu berritan Geroa Baik heldu dion gaietako bat Altsasuren garbiketaren bertikala izan da. Udalaren zeregina dela gogorarazi eta hainbat pintaketa dagoeneko borratu dituztela gogorarazi zuten Ollok. Adostutakoaren arabera, eraikin publikoetakoak 60 egunen aurretik kentzen dituzte eta eraikin pribatuetakoak jabeen eskaerak jaso ahal. Dagoeneko bospasei eskaera jaso dituzte udal txean. Alkateak aurreratu zuen

festen ondoren parte-hartze batzordea elkartu eta zortzi informazio panel non jarri erabakiko dela.

Joan den urteko diruzaintzako gerakina zein inbertsioetara bideratu zehaztu du udalak ere. Lan horiek guztiak urtea despeditu aurretik eginak behar dute. Alkateak alderdien artean lortutako adostasuna goraiatu zuen. Ollok jakinarazi zuenez, festak bukatu eta hurrengo egunetan, Foru plazako zorua konpontzeko lanak hasiko dira.

Bestetik, memoria historikoen arloan Nafarroako Gobernuari legea bete eta Otsoportillon dauden bost altsasuarren gorpuzkiak atera, identifikatu eta haiek berriro lezean sartzeko gastuak ordain ditzala eskatu zuen. Bide batez, saroiko leizeko bederatzi hezurduren identifikazioagatik Aranzadi zientzia elkarteari 1.500 euro ordainduta daude. +www.guaixe.eus

Festak



Lau urtero gertatzen den moduan, udal berriak festen gaiari nahi bezala heltzeko aukerarik ez duela izan aurreratu du alkateak. Aurreko urteetako dinamikari segi eta festen batzordean onartutakoa egitaraua eraman dela azaldu zuen. Salbuespena ostiralerako iragarriak dauden elkartasun brindisa eta bazkaria. "Egiten dira, baina ez dira egitarauan agertuko". Alkateak azaldu zuenez, udaleko talde gehienek ez zuten ekitaldi horiek egitarauan sartzeko egoki ikusi. "Horrela, bes-

te herri batzuetan, Burlatan esaterako, izandako salaketak eragotzen dira. Epaia dena delakoa izanda ere, udalak ordaindu beharko lukeen epaiketa eragotzen da". Bestalde, alkateak aurreratu zuen udalaren gehiengo Foru plazan jartzeko txoznak beste nonbait kokatzeari alde dagoela. "Ez debekatzea, beste toki batean jartzea baizik. Aurten betiko tokian mantenduko dira, baina heldu den urterako udalbatzan eta txoznak jartzeko dituzten kolektiboekin kokapena aztertuko dugu". +guaixe.eus

SAKANA

Lastailaren 3an Espainiaren kontrako epaiketan parte hartzea deitu dute

Herriak Libre dinamikaren barruan "herria izango da espainiar estatu inperialista epaituko duena"

Lastailaren 19an hasiko da Askapena erakunde internazionalistako sei kideren kontrako epaiketa Espainiako Auzitegi Nazionalan. Tartean da Aritz Ganboa De Migel arba-zuara. "Gure herrian elkartasun internazionalista lantzeagatik epaituak izanen gara" adierazi dute behin baino gehiagotan, halakorik onartzen ez dutela adieraziz. Epaiketa salatu eta "espainiar estatu inperialista, epailea epaitzeko" herri epaiketak antolatu dira. Herriak Libre dinamika antolatutako epaiketan parte hartzea gonbidatu ditu herritarrek. Sakanan lastailaren 3an izanen da. Euskal Herrian eta nazioartean egiten diren 30 epaiketen ondoren, lastailaren 12an, eguerdian, Iruneke Antoniuttitik abiatuko den manifestazioaren ondoren "herri sententziaren" berri emanen dute.

SAKANA

Klinikak bere jakintza sakandarrekin partekatuko du

Josefina Arregi klinikak prestakuntzako 4 hitzaldi eta 3 tailer antolatu ditu udazkenerako. Interesa dutenei eta demenzia duten pertsonak zaintzen dituztenei zuzenduta daude saioak. Arreta eta prestakuntza zerbitzu baten baitan kokatzen dira

Ospitalea, eguneko zentroa eta kanpo kontsultak; horiek dira Josefina Arregi klinika psikogeriatricoak Altsasun eskaintzen dituen zerbitzuak. Orain udalekin eta osasun etxeekin elkarlanean, bere zerbitzuak "zahartze osasuntsuan eta gaitz neurodegeneratiboen prebentzioan eta zaintzan interesa duten pertsonen hurbildu nahi dizkie, erantzun koordinatua emateko". Hala azaldu digu klinikako kudeatzaile Javier Saenzek.

Horretarako, klinikako ardura-dunek Sakanarako arreta eta prestakuntza zerbitzua martxan jarriko dute. Kudeatzailearen arabera, "ohitura osasuntsuak sustatzea eta gaitzak kaltetutako pertsonak

eta haien familiak modu eraginkoragoan artatzea da helburua. Izan ere, helburu nagusia bizi kalitatea hobetzea da".

Lau lan ildo

Josefina Arregi klinikako profesionalak beharren arabera elkarrekin osagarriak diren lau lan ildo zehaztu dituzte zerbitzu berria aurrera eramateko. Bate-tik, klinikako profesional taldeak emandako prestakuntza saioak, erietxean eta herrietan izanen direnak. Momentuz, Altsasuko egutegia zehaztuta dago, baina Sakanako beste herrietan ematea ez dute bazter-tzen. Haien osagarri izanen dira proiektua garatzeko beste erakundeekin elkarlanean egin daitezkeenak ere.

Bestetik, proiektuaren zati da ere zaintzaileei zuzendutako prestakuntza ere; erietxean edo etxe-



Klinikaren ekitaldiak egiten dira aldika. Haietako batean Enrike Zelaia izan zen.

etan litzateke. Klinikaren hori mar-txan jartzeko lanean ari dira bai-ta gaixoei etxean arreta pertsona-lizatua eskaintzeko ere.

Azkenik, psikoestimulazioko bi tailer mota eskainiko dituzte.

Osasuntsu dauden eta hala zahar-tu eta gaitz neurodegeneratibo-en prebentzioa landu nahi duten per-sonendako da bat. Bestearen hel-burua gaitzen interbentzio tera-peutikoa da.

Egutegia*

>> Irailak 22, asteartea

Pertsona dependenteak nola mugitu. Tailerra: Itziar Iturrioz (erizaina) eta Eneka Lizarraga (erizaintzako-laguntzailea).

>> Irailak 29, asteartea

Jokabidearen trastornoa duten demenziadun pertsonen erabilera. Hitzlaria: Jose Joaquin Roldan (mediku psikiatra).

>> Lastailak 13, asteartea

Demenzia duten pertsonen nola komunikatu. Hitzlaria: Carmen Etxabarri (mediku neurologoa).

>> Lastailak 27, asteartea

Psikoestimulazioa etxean. Tailerra: Laura Moreno (neuropsikolo-goa).

>> Azaroak 10, asteartea

Adinduen sindromeak. Hitzlaria: Paola Roa-Granthon (mediku geriatra).

>> Azaroak 24, asteartea

Musikoterapia. Tailerra: Raquel Guerrero (okupazio-terapeuta).

>> Abenduak 15, asteartea

Bitartekoak eta gizarte laguntzak. Hitzlaria: Josune Lopez de Goikoetxea (gizarte langilea).

*Saio guztiak Altsasuko Iortia kultur gunean dira, 18:00etan.

SAKANA



Ile-apaintzaileak sektorearen defentsan

Nafarroako Ile-apaintzaileen Elkar-teak jakinarazi duenez, sektorearen defentsan kontzentrazioa egingen da hilaren 20an Madril. Elkartetik gazi-gatatu dutenez, 2012an Espainiako Gobernuak ile-apaindegien BEZ zerga %8tik %21era pasa zuen. Neurri horren kontrako mozioak, eta proposamenak aurkeztu izan dituzte udaletan eta parlamentuan. Ile-apaintzaileek haien babesba jaso dute, baina gobernuak ez du BEZa zegoenean utzi eta, ondorioz, ile-apaindegiak itxi eta lanpostuak galdu direla ohartarazi du elkar-teak. Horregatik, ile-apaintzaileak Madril-en deitu den kontzentrazioan parte hartzera deitu dituzte.

>> Unanu

Kontzejuak hilerria erabiltzeko ordenantza aldatu du

Unanuko Kontzejuak hilerriaren erabilera araudian bi aldatuta nagusi egin ditu. Batetik, Kanpoan bizi direnak eta Unanun urte bat baino gutxiago errolatuta dauden lur emateagatik kobratu egingen du kontzejuak. Arau horretan salbuespena da gaixotu eta zaintzarako kanpora eraman dituzten heriotzak izanen dira.

Hilerrian lurreen lur ematen zaie hildakoei. Orain arte hilarri altuak jarri dira. Baina hildako berriendako zuloa egiteko erabiltzen den makinarendako traba dira eta, horregatik, hilarri handiak behar-rean aurrerantzean plaka duten harri txikiak jarri ahalko dira soilik. Kontzejuak onartutako aldaketa 30 egunez jendaurrean dago, interesdunek espedienteaztertu eta erreklamazio, kexa edo ohar-rrak aurkez ditzaten.

>> Uharte Arakil

Zubi zaharretik ezin dira 3.500 kilo baino gehiagoko ibilgailuak pasa

Hainbat matxura atzeman dira agorriean boluntarioek egindako garbiketan

Hori adieraziko duten seinaleak dagoeneko enkargatuak ditu Uharte Arakilgo Udalak. Ainara Aiestaran alkateak jakinarazi digunez, arkitektoak zubiaren egoeraren inguruko txostenaren zain daude, Nafarroako Gobernuaren ondarearen arduradunen eta Ebroko Ur Konfederazioaren atzetan jotzeko. Begi bistakoa da ibilgailu handi batek zubiaren ezkerreko petrilean egindako zartatua edo ibaiatz bestaldeko oinarria babesteko uretan dagoen harrizko egituraren dagoen zuloa.

Garbiketarako agerian utzitako matxurak

Agorriaren 25ean despeditu zuten Arakil gaineko zubia gar-



Boluntarioak garbiketa lanetan. 700 urte ditu zubiak, 30 luze eta 4 zabal.

bitzeko lanak. Boluntario talde baten ekimena izan zen hura garbitzea. Udalarri jakinarazi zioten eta hark zegozkion baimenak eskatzearekin batera bandoa zabaldu zuen, uhartearrak herriko ondarearen garbiketan parte hartzeko animatzen.

Bost boluntario aritu ziren. Lan zehatz batzuk udaleko bi langilek egin zituzten. Lau egun eman zituzten zubian eta haren inguruan zeuden sasiak eta zuhaixkak kentzen eta pilatutako lurra bazter-tzen. Guztia zubia ikusgarriago egiteko.

PPSOE,
ETB
digitala
Nafarroan
orain!
Berria erosi taldea

9 lagunendako
TAXIA
Jon Kordon

948 500 388 / 629 428 025
IRURTZUN

FRANTSESA
2015-2016
ikasturterako
matrikula
epea zabalik
AHALEGIN
Arkangoa 3-1 · ALTSASU
672 162 036 · 944 167 012
ahahalegin@yahoo.es

berriozarko udala
EUSKARA TEKNIKARIEN
KONTRATAZIO-ZERRENDA
Nafarroako 25 Udala eta Mankomunitatetan euskara teknikari aritzeko kontratazio-zerrenda.
Eskabideak aurkezteko azken eguna: irailaren 24a.
Deialdia 2015eko irailaren 4ko Nafarroako Aldizkari Ofizialean.

BERRIOZARKO UDALA



Nonerabili

KIKI ARGAZKI DENDA

ALTSASU

15x20 cm-ko 8 argazkiko erreportaje batean beste bi argazki opari.

TANIA ARRAINDEGIA

LAKUNTZA

50 €ko gastuarekin, etxeko produktua doan.

LAKUNTZAKO OSTATUA

LAKUNTZA

Menuarekin, kafea edo kopa doan.

ZURE EKO DENDA

IRURTZUN

€10eko deskontua kontsulta terapeutikoetan.

HOTEL OLATZEA

ARBIZU

Eguneko menuarekin, kafea doan, menu bereziarekin, txupittoa doan.

ETXARRI HORTZ KLINIKA

ETXARRI ARANATZ

%10eko deskontua garbiketetan.

LURESU

ALTSASU

% 10eko deskontua eskaintza berezi eta enkarguetan izan ezik.

NORTE ERLOJUDENDA

ALTSASU

%7ko deskontua produktu berrietan, konponketetan eta aldaketetan salbu.

MENDIGAIN URDEIAZPIKOAK

LAKUNTZA

50€ko erosketa eginez gero etxeko produktua opari.

URREZKOA BITXIDENDA

IRURTZUN

Bitxietan 100 €ko erosketa egitean, %10eko deskontua.

www.guaixe.eus-en zerranda osoa ikusgai



>> Etxarri Aranatz

Udal ikastaro eskaintza

Etxarri Aranazko Udalak ikasturteari begira hainbat ikastaro antolatatu ditu. Lastailaren 5ean hasiko dira pintura, zunba, soinketa lasaia, aerobic-a, pilates eta GAP, dantza latindarrak, yoga, komunikatzearen artea, patchwork-a, zirko tekniken bidez gorputza ezagutzea eta haurrendako zirko tailerra. Guztietan ere parte-hartze kopuru mugatua izanen da. Onartutakoak izaterakoan lehen-tasuna etxarriarrek izanen dute.

Izen ematea irailaren 23ra arte dagozabalik. Bete beharreko inprimakiak udaletxeko bulegoan eta



Haur eta helduendako eskaintza egin du Etxarriko Udalak.

www.etxarriaranatz.eus webgunean eskuragai daude. Onartutako zerrendak irailaren 25ean

webgunean eta iragarki oholean jarriko dira.

Bestetik, herrian bestelako jar-

duerak egiteko aukera dago. Kiro-lari dagokionez, futbola, esku pilota, pala, herri kirolak, saskibaloia, xakea, txirrindularitza, irristaketa eta yoseikan budo. Euskal dantzetan eta gazteen eta helduen abesbatzetan aritzeko aukera ere badago Etxarrin.

Haur txokoa

Gurasoek txandaka zaindutako jolastokia ikasturte guztian, aste-gunetan, 16:45etik 20:00etara, zabalik egoten da. Interesa duenak irailaren 25era arte eman dezake izena udaletxean. Familiako 5 euro ordaindu behar da. Ikasturte hasierako bilera hilaren 30ean, 19:00etan, kultur etxean egingen da.

>> Altsasu

Udalaren 13 jardueretan izena emateko epea zabalik

Kultura, Berdintasun, Gazteria eta Ludoteka zerbitzuetan hilaren 23ra arte eman daitezke izena. 25ean behin behineko zerrendak argitaratuko dira

Altsasuko Udalaren lau zerbitzuek antolatutako jarduerak lastailaren 5ean hasiko dira. Emakumearen Bilguneak joste lana, lenteria, zeramika, etxeko konponketak eta eho-ziriak ikastaroak antolatu ditu. Joan zen urtean 82 emaku-

mek parte hartu zuten. Iortiako antzerki tailerra apirila bitartean izanen da martxan; aurreko kursoan 9 kide izan zituen. Ludotekak, bestalde, astegun guztietan zabalduko ditu ateak. Egutero, astean behin edo astean bitan joateko aukera eskaintzen du zerbitzuak. Joan den ikasturtean 122 erabiltzaile izan zituen, 69 mutilo eta 53 neskatu.

Gazteria Zerbitzuak honako eskaintza egin du: lanbidea garatzeko baliabideak, antzerki musikala, argazkiak eszenaratzea eta ukituak ematea, lore bitxiak, 10 ordu sexuaz, aisialdiko begiraleak eta batukada. Aurreko edizioan 68 neska eta 19 mutilek parte hartu zuten. Azkenik, liburutegitik hizketaldi literarioak antolatu zuten segituko dute.

Kirola

Kirol eskolatan, bestalde, jardura zabala dago. Aurreko ikasturtean 607 gazte aritu ziren haietan (406 mutil eta 201 neska). Zelandi kiroldegian antolatutako jardueretan, bestalde, iaz 400 pertsona baino gehiago urarekin lotutako jardueretan aritu ziren eta 350 lehorrekoetan. Zelandiko eskaintza hilaren 21ean hasiko da.

Altsasuko festak 2015



Jonathan Medina, eserita, izanen da gaur etxajua piztuko duena.

Festak eta aniztasuna, eskutik

Altsasuk aniztasuna, berdintasuna, errespetua eta diskriminazioa maite dituela adierazten du udaletxean dagoen pankartak.

Altsasuarrak "zurumurru, aurreiritzi eta estereotipoen aurrean duten jarreraz hausnartzera" gonbidatzeko, Altsasuko Udalak bat egin du Sakanako Mankomunitateko Immigrazio Zerbitzuen eta Burunda mendebaldeko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen aniztasunaren aldeko kanpainarekin. Pankartaz aparte, txupinazoa piztuko duten Koxka areto futbolero kideek kanpainaren mezua duten kamixetak jantzi dituzte. Iru-dia festetako programan ere sartu da.

Immigrazio Zerbitzuko Bego Zestau Baraibarrek "bizikidetzako baikor baterako aldaketak egite-

ko aukera" norberaren baitan bilatzeko gonbitea egin du. Noizbait etorkin bihur gaitzkeela eta harrera gizartearen zein tratu nahi genukeen hausnartzeko gonbitea egin du. Etorkizuna modu baikorrean kudeatzeko harrera gizarteak eta etorkinak egiteko dutela eta horretan kanpainako leloa gakoa dela adierazi du.

Kamixetak salgai

Maite dut aniztasuna, berdintasuna, errespetua eta diskriminazioa eza leloa du Immigrazio Zerbitzuak martxan jarritako kanpainak eta hura duten kamixetak 5 eurotan daude salgai.

Munduko Arrozak ekimenean parte hartzeko gonbitea luzatu dute

Festetako asteartean, 11:00etan, Zubeztia plazako karpan arrozaren ezberdinetara prestatu eta dastatzera emanen da.

Irurtzango esperientziaren jakitun, Altsasuko herri mugimenduko kideak Munduko Arrozak ekimena festetara ekartzea pentsatu zuten. "Altsasun bizi garen kultura ezberdinak hartuko lukeen jardura bat nahi genuen. Kulturak eta altsasuarrak elkar ezagutzeko", argitu digu Eider Leozek.

Horregatik, Sakanako Mankomunitateko Immigrazio Zerbitzura jo zuten eta Bego Zestau Baraibarrek ideia "pozik" hartu zuen. Burunda mendebaldeko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomu-

nitarekin batera ekimena aurrera ateratzeko lanean aridira denak. Altsasuarrak parte hartzea eskatu eta eskaini diete. Munduko Arrozak egin edo dastatzeko. Ideiarekin bat egin dute hainbat tek dagoeneko.

Zubeztiako karpan pasatzen denak henna tailerra eta Youssef Keji berebere arbeslaria kantuan izanen dira, bestelakoekin batera. Sentsibilizatorako txokoa izanen da ere. Arrozak egin ondoren, nahi duenak munduko zapo-reak, mundua dastatzeko aukera izanen du. "Kulturen arteko hurbilpen keinutzat" du Zestauk asteartekoa.



Astearte goizean Zubeztiako karpatik pasatzeko gonbitea luzatzen.

GRUPO TANATORIO
IRACHE
TANATORIO TALDEA

948 197 070

Tanatorioak: Altsasu-Irurtzun-Lekunberri-Betelu-Leitza

www.tanatoriosirache.com

 **Alberto Artola Gonzalez**
XII. urteurrena
Betirako gure bihotzean egonen zara. Eskerrik asko.
Etxekoak
Lakuntza.

 **Jose Luis Garcandia Balda**
I. urteurrena
Beti gure bihotzean.
Leixkonekuek
Arbizu.

 **Balbino San Roman Satrustegi**
Urrun egon arren, beti elkarrekin.
Olaztiko lagunak eta kintoak

Oroigarriak

Guaixe KOMUNIKAZIOA
948 564 275

Eskertzak eta eskelak osteguneko goizeko 11:00ak arte jasotzen ditugu

Bidali mezua zorion@guaixe.eus-era edo hots egin
948 564 275 telefonora

 **Loli**
Elur malutak bezala
Kexurik isuri gabe
Instant batez... eta lurrera eroriz.
Betirako gure bihotzetan.
Zure lagunak

GRUPO Funeraria **VASCONGADA** Ehorzketak TALDEA

Olaberrian bertan **BEILATOKIA** eta **ERRAUSTOKIA**
www.funerariavascongada.com

24 ORDUZ: **943 106 222 • 943 376 980**

guaixe.iragarkilaburrak.com

NORBANAKOEN IRAGARKIAK
Guaixe astekarian: Astebete: 3€ / 3 Astez: 8€ (BEZ barne).
Argazki bakoitzeko 3€. Lan eskaerak/eskaintzak eta pribatuak ez diren ikastaroak: **doan**.
Webgunean: guaixe.iragarkilaburrak.com-en.

HARREMANETARAKO
Telefonoa: 948-56 42 75
Posta elektronikoa: zorion@guaixe.eus

Higiezinak
ETXEBIZITZAK
SALGAI

Txantrean pisua salgai. Ezkaba plazan. 3 logela, berritua, igogailua, balkoi itxia, leiho abatibleak, berogailu zentrala etab. Ezkaba mendira eta Munduaren parkera bista ederrak. 120.000 € negoziagarriak. Tel: 625 05 90 89.

Lehiaketa
Argazki lehiaketa. Nafarroako Landa Turismoko Federazioak Igo Argazki Lehiaketa antolatzen du Nafarroa bisitatzen dutenei zuzenduta. Argazkiak e-mail bidez bidali daitezke info@turismoruralnavarra.com helbidera edo zuzenean www.turismoruralnavarra.com web orrialdera igo. Azken horretan dago lehiaketari buruzko informazio guztia.

Oharrak
Odol-emaileak. Irailaren 16an eta 23an, Etxarri Aranatzan, arratsalde; 24an Olaztin eta Ziordin arratsalde eta 25ean Olaztin, goizez.

Autoenplegurako laguntza. Zure lanpostua sortu nahi baduzu Cederna-Garalurrek honako laguntza eskaintzen du: ideia aztertzea, proiektua garatzea, enpresa sortzea edota martxan dagoen jarduera sondotzea. Argibide gehiago: 948 56 70 10, sakana@cederna.es edo sakana.admon@cederna.es

Mintzakide proiektua. Egonkortzeko denon laguntza behar dugu, lagundu zabalzen eta finantzatzeko: <http://goteo.org/project/zu-gabe-ezin>

Nafarroako Elikagaien Bankuaren alde. Diru ekarpenak kontu korrante hauetan egin daitezke: Laboral kutxa 3035 0069 52 0690024878, Rural kutxa 3008 0001 16 0700279128 eta Caixabank 2100 2173 87 0200346965.

Euskonews ekonomikoki laguntzeko kanpaina. Informazio gehiago: www.euskonews.com/laguntza euskonews@euskonews.com, 943- 32 22 94.

3MBk kontu korrantea zabaldu du. Rural kutxan eta jendeak han egin ditzake ekarpenak

3008 0093 66 2460985811

Auzolana Josefina Arregui klinikan. Auzolanean parte hartu nahi dutenek 948- 56 38 50 (klinika) edo 689- 03 51 20 (Patxi) telefonotara hots egin dezatela.

Bazkideak Josefina Arregi klinikarako. Bazkideak izan nahi duenak urtean 12 € edo nahi duen kopurua eman dezake. Informazio gehiago: amigosjosefinaarreguilagunak.blogspot.com edo amigosjosefinaarreguilagunak@gmail.com

Eskuratu zure beleixeguaixe txartela. 50€ko kuota urtean eta deskontu eta abantaila paregabeak betirako. Deitu 948 564 275 eta izena eman edo bete formularioa gure webgunean www.guaixe.eus.

Nafarroako Ondarearen Defentsarako Plataforma laguntzeko. Eliza katolikoak, Iruñeko eta Tuterako Elizbarrutiaren bidez, Nafarroako herrietan egiten ari zen ondare publikoen inmatriculazioei aurre egiteko sortu zen. Egoitza Iruñeko Estafeta kaleko 57. zenbakian dago. Liburua argitaratu dute, hitzaldiak eman. Laguntza jasotzeko ondoko kontu korrantea zabaldu dute Nafarroako

Kutxan: 2054/0142 68 9152623199.

Lugorri produktu ekologikoen elkarte eta denda. Sakanan produktu ekologikoak zuzenean eskuratzeko gunea da Lugorri, inguruko nekazari eta abeltzainekin harremanetan jarritik edo hornitzaile desberdinei eskatuz. Bertako eta urtaroko produktu ekologikoen alde egiten du Lugorrik. Lugorriko partaide egiteko 50 euroko kuota bakarra eskatzen da. Lugorriko Lakuntzako dendan (Mankomunitatearen parean) salgai dagoena: fruta, barazkiak, ogia, ardoa, olio, gazta, arroza, pasta, gailetak, txokolatea, haragia, behi esne eta esne begetalak, ezitia, arrautzak, garagardoa, lekaleak, ozpina... Informaziorako: 656 711 130 (Gorka).

Herrialde behartsuak laguntzeko Etxarriko boluntarioen kanpaina. Haietan premiazkoak direnak, eta Etxarri jasotzen direnak: udako arropa eta oinetakoak; sehasak; ohe arropa; esku oiahalak; sukaldeko tresneria; idazteko makinak; ordenagailuak; kanpin dendak... Nora eraman: Etxarriko Eliz korta kalera, gaztetxe ondora, irratia zegoen tokira, astelehen eta asteazkenean. Harremanetarako: 948 460 804 edo 948 460 875 telefonoak.

Kultur bitartekaritza+ itzulpen zerbitzua Sakanan. Sakanako Mankomunitateko Immigrazio Zerbitzuak martxan jarria, etorkinekin harreman zuzenean ari diren profesionalak, eta baita etorkin beraie ere, bai ahozko nola idatzizko itzulpen zerbitzua eskaintzeko. Eskaintzen dena: itzulpenak bai frantsesera nola arabierara, eta hizkuntza ezberdinak direla medio, sor daitezkeen gatazken aurrean bitartekaritza zerbitzua. 9:00etatik 10:30era osasun zentroetan, 11:00etatik 12:30era ikastetxeetan eta 13:00eta-

EZKONTZAK
• **Jesus Esain Eugi eta Yolanda Lizarraga Mozo,** irailaren 7an Unanun.

HERIOTZAK
• **Saturnino Urriza Anso,** abuztuaren 16an Bakaikun
• **Maria Dolores Telleria Arrieta,** irailaren 5ean Altsasun

Informazio hau epaitegietan eta udaletan jasotzen da. Agertu nahi ez duenak, han jakinarazi dezala.

tik 14:30era gizarte zerbitzuetan. Astelehenetan Etxarri Aranatzan, astearteetan Irurtzun eta ostegunetan Altsasun. Aurretik txanda eskatu 648 07 07 10 edo immigrazioa@sakanamank.com posta elektronikoa.

Gazteendako sexualitate aholkularitza. Hileko lehen asteartean, 15:00etatik 17:00etara Altsasuko Intxostiapunta gazte gunean (Burunda kaleatik sartuta. 948 564 785 telefonoa edo gazteria@altsasu.net helbidea). Adina: 12-30 urte.

Izan zaituz Mintzakide! Euskara ongi dakien bat ikasten edo trebatzen ari den bizpahiru pertsonarekin biltzen da, astean behin, ordu batez. Taldeak gustuko duena egitea aukeratzeko: kafea hartu, paseatu... baina beti euskaraz. Informaziorako: 607 624 392 telefonoa, sakana_mintza@aek.org e-posta edo sakanamintza.blogspot.com ataria.

Pilota

Ansak eta Gorritik Altsasuko txapelak nahi dituzte

46. Otadiko Kristo Deuna Txapelketa (2. finalerdiko emaitzak):

Eskolak:
Imaz (Arbizu) **18** / Erdozia (Etxarri) **7**
22 urtez azpikoak:
Bakaikoa-Martija **10** / Laso-Olaizola **22**
Seniorrak:
Ongay-Linzoain **22** / Azpiri-Gorriti **19**

Ostiralean jokatu diren 46. Otadiko Kristo Deuna Txapelketako final handietan bi sakandar izango ditugu Ansa (22 urtez azpikoan) eta Ongay (eliteetan). Bakaikoa eta Gorriti bidean geratu dira

Sociedad Deportiva Alsasua elkar-teak antolatutako 46. Otadiko Kristo Deuna Pilota Txapelketako bigarren finalerdian gozatu ederra hartu zuten Burundara hurbildu ziren pilotazaleek. Kimuen mailako partida batek zabaldu zuen jaialdia. Imazek (Arbizu) 18 eta 7 hartu zuten menpean Erdozia (Etxarri Arantz). Ondoren 22 urtez azpiko txapelketako bigarren finalerdiari ekin zitzaion. Bakaikoa etxarriarrak eta Martija Laso eta Olaizola izan zituzten aurkari. Partida oso gogorra izan zen, oso lehiatua eta erritmo bizikoa. Bukieran Laso eta Olaizola 22 eta 10 gailendu ziren baina markagailuak ez du islatzen kan txan bizitako lehia estua. Irabazleek partida bikaina jokatu zuten, baina Bakaikoak eta Lasok ez zuten



Ongay eta Linzoain sailkatu ziren seniorren finalerako. S.D.A.

merezi horrenbesteko aldeagatik galtzea, primeran aritu baitziren lau pilotariak. Martija, Laso eta Olaizolak maila bikaina eskaini zuten baina, nahiz eta primeran hasi, Bakaikoaren mailak behera egin zuen. Biko bakoitzak tanto bat egin zuen sakez, eta Bakaikoak sake bat huts egin zuen. Tamalez, etxarriarra finaletik kanpo geratu da.

Elite mailan Ongay satrustegiarrak eta Linzoain 22 eta 19 gailendu ziren Beitia eta Gorriti uhar-tearraren kontra. Partida gogorra eta lehiatua izan zen, eta atzelarien lana aipatzekoa da, oso fin ibili baitziren. Aurrelariak ere ikuskizun polita eskaini zuten, publikoaren gozamenerako. Lau pilotariak maila bikaina eman zuten. Ongay fin ibili zen eta 3 tanto egin zituen sakez.

46. Otadiko Kristo Deuna Txapelketa. Finalak

Ostiralean, 22:30ean Burunda pilotalekuan
Erakustaldia: Olaetxea (Arbizu) / Goikoetxea (Arbizu)
22 urtez azpikoak: Ansa-Otaduy / Laso-Olaizola
Eliteak: Arrieta-Imaz / Ongay-Linzoain

Final handian bera izango da ordezkari sakandar bakarra, Gorriti bidean gelditu baita.

Ansaren eta Ongayren alde

Altsasuko festak lehertzen diren egunean, ostiralean, jokatu dira 46. Otadiko Kristo Deuna Pilota Txapelketako finalak, gauean, 22:30etik aurrera, Burunda pilotalekuan. Hasieran Arbizuko pilotako gazte mailako Olaetxea eta Goikoetxea pilotarien arteko lehia izango da. Ondoren 22 urtez azpiko finalerako Ansa altsasuarrak eta Otaduyk Laso eta Olaizola izanen dituzte aurkari. Ansak herri-tarren babesa izanen du eta ea txapela jantzerik duen. Eta seniorretako finalean Ongayk eta Linzoainek Arrieta eta Imaz izanen dituzte aurkari. Ea Ongayk irabazten duen. Nolanahi ere, maila handiko finalak espero dira eta gure ordezkariak lan handia egin beharko dute txapela jantzi nahi badute.



Txirrindularitza

Iruñeko Izarren Saria Ailetz Lasarendako

Ostiral gauean 70. Izarren Trofeoa jokatu zen Iruñean, Baiona etorbidean. Kadete eta juniorrak lehiatu ziren. Kadeteen mailan Quesos Albeniz taldeko Ailetz Lasa gailendu zen. Bigarrena bere taldekide Josu Etxeberria izan zen. Intersport Irabia taldeko Imanol Galarza 14. sailkatu zen eta talde bereko Javier Michaus 17.a.

Junior mailan George Jaryk irabazi zuen. Irabiako Gorka Arbizu 6.a sailkatu zen, bere taldekide Izai Mauleon 8.a eta Q. Albenizeko Alex Uncilla 12.a.

LASA 2.A ETA ETXEBERRIA 5.A ARABAKO ITZULIAN

Igande goizean kadeteen mailako Arabako Itzuliko lehen etapa jokatu zen, Ribabellosan. Ailetz Lasa bigarrena sailkatu zen eta kadeteen mailako lehen urteko maillota jantzi zuen. Josu Etxeberria bosgarrena sailkatu zen, eta mendiko sailkapeneko maillota jantzi zuen.

JUNIORRAK LUKINEN

XLII. Lukineko Udala Saria jokatu zen larunbatean, 84 km-kopropa. Adrian Martin izan zen azkarrena. Alex Uncilla 13.a iritsi zen helmugara, Gorka Arbizu 16.a eta Xabier Maiza 27.a.

ESPAINIAKO KOPAKO ERLOJUPEKOAN ARAMENDIA 15.A

Asteburuan Espainiako Junior Txapelketako Kopa jokatu da Sabiñanigon. Larunbatean jokatu erlojupekoan (17,3 km) Martin Bouzas galiziarra gailendu zen (21:51). Nafarroako selekzioarekin aritu zen Quesos Albenizeko Eneko Aramendia 15.a sailkatu zen (23:10). Lasterketan Valenciaselekzioko Alejandro Gamiz izan zen garailea (2:37:07). Nafarroako selekzioarekin aritu zen Quesos Albenizeko Asier Etxeberria proba bukatzean lortu zuen, 66. postuan, 2:48ra. Bere taldekide Eneko Aramendia erretiratu behar izan zen. Aragoiko selekzioarekin aritu zen Q. Albenizeko Juan Alberto Jimenez ere erretiratu egin zen.

Ezkurdiak eta Zubietak bikotea osatuko dute Altsasun

Irujo eta Merino II.a izango dituzte aurkari igandean 17:00etan Burundan Aspek antolatu duen jaialdian (ETB1)

Goi mailako pilotak ez du huts egingo Altsasuko festetan. Aspek jaialdi bikaina antolatu du igandeko Burunda pilotalekuan, 17:00etatik aurrera. Jaialdia ETB1-eko kamerei esker telebistan jarraitu ahal izango da zuzenean.

Hasierako partidaren Retegi Bik eta Merinok Aritz Lasa eta Cecilio izanen dituzte aurkari. Ondoren iritsiko da emozioa, Joseba Ezkurdi arbizuarrak eta Aitor Zubietak etxarriarrak bikotea osatuko baitute, Zubietak orkatilean dituen arazoak konpontzen badira, Miarritzeko Torneo finalerdian bihurtuta izan baitzuten. Sakandarrek Irujo eta Merino II.a izanen dituzte aurkari. Aurtengo Andra Mari Zuria Torneon txapelkunak izan ziren Ezkurdiak eta Zubietak atzera ere bikotea osatuko dute irailaren 20an hasiko den Logroñoeko San Mateo Torneon.



Sakandarrak Altsasun arituko dira eta bikotea osatuko dute San Mateotan.

Hortaz, txapelketa prestatzeko bikain etorriko zaie igandeko Altsasuko lehia. Baina Irujo aerio gogorra da, eta, egungo atzelari sendoenetako bat den David Merinoren laguntzarekin, gauzak oso zail jarriko dizkie sakandarrei.

Sarrerak erosteko

Erreserbak 661 259 009 telefonoan (Olaia). Bestela egunean bertan, Burundako txarteldegian.

Zubietak eta Xalax Miarritzeko finalera

Gaur jokatu dute finala, 20:30ean, Bengoetxea VI.a eta Albisuren kontra

Aitor Zubietak eta Xalax Miarritzeko Master Pro Torneo finala jokatzeko txartela lortu zuten asteartean, Irujo eta Barriolari 22-21 irabazi eta gero. Zubietak eta Xalax hasieratik menderatu zuten eta 20-10 aurreratu ziren. 15. tantoan Zubietak txorkatila bihurtu zuen eta hortik aurrera ez zen berdina izan. Irujo eta Barriolari 21era berdintzera lortu zuten baina azken tantoa irabazi eta gero, gaur, ostiralean, Miarritzeko finala jokatu dute Zubietak eta Xalax. Oinatz Bengoetxea eta Ander Albisu izanen dituzte aurkari.

Zalantzan. Etxarriarrak orkatilean dituen arazoak konpondu diren ala ez ikusteko dago.

Ezkurdia-Merino Lekeitioko txapelarik gabe. San Antoline-tako Torneo finalerako Olaizola eta Zabalak 22 eta 14 hartu zituzten menpean Ezkurdi eta Merino II.a

Futbola

Lagun Artea 2015-2016



Atezainak: Eneko Orrio eta Jon Goikoetxea. **Atzelariak:** Ander Torres, Carlos Pascual, Urko Eizagirre, Eneko Cruz, Aitor Egurza, Samba Diouf, Gorka Otxotorena eta Sergio Muñoz. **Erdilariak:** Jonathan Dávila, Xabier Burillo, Ibon Arregi, Omar Ndiaye, Iñaki Berastegi, Mikel Beraza, Daniel Ramos, Joseba Montoya eta Raul Erice. **Aurrelariak:** Ander Unanua, Asier Salgado eta Ruben Mendietea. **Entrenatzailea:** Manuel Plano. **2. entrenatzailea:** Sergio Perez. **Fisioterapeuta:** Daniel Ramos. **Delegatuak:** Oscar Maiza eta Diego Cruz.

Berritutako Lagun Artea

Lakuntzako taldeak 10 baja eta 7 alta izan ditu. Beteranoen taldea utzi dute eta Manuel Plano entrenatzaile berria taldea osatzeko lanetan dabil. Helburua ahalik eta lan onena egitea da, goiko postuetan sailkatzeko

Asteburuan hasiko dute 2015-2016 denboraldia gure taldeek. Lagun Arteak Preferente mailan jokatu du, erregionaletik igo zen Etxarri Aranatz taldearekin batera. Aldiz, Altsasuko erregional mailan jarraituko du.

Lagun Artea talde ia berritua izango dugu aurten. Lakuntzako taldeak 10 baja eta 7 alta izan ditu. Taldeko beterrano handiek –Unai Bakaikoa, Arkaitz Gasco, Medina... talde txuria utzi dute. Gainontzeko jarraitu egiten dute eta 7 jokalar berri iritsi dira taldera, horietatik 4 Iruñetik, Manuel Plano entrenatzaile berriarekin etorritak. “Aurreko denboraldia ahazteko modukoa izan zen. Beteranoetan oinarritutako taldea planteatu genuen, jokalar berriek haiekin ikas zezaten, baina zorte oso txarra izan genuen lesioekin. Beterano guztiak lesionatu zitzaizkigun, lesio oso larriekin, gainera. 3 jokalarik lotailu gurutzatuen lesioa izan zuten, lotailuen hausturak, ateratako sorbaldak... denetatik. Ez genuen zortetik izan. Taldeak motibazioa eta interesa galdu zuen. Kategoriari eustea lortu genuen eta gaitz erdi. Hortaz, aurten berrituko hasi beharko dugu” adierazi du Lagun Arteako idazkari Jesus Mari Goikoetxeak.

Entrenatzaile berria, Manuel Plano

Manuel Plano izango da taldearen entrenatzaile berria. 63 urte ditu eta esperientzia handia. 22 jokalar izango ditu bere esanetara, gehienak Lagun Artean sortutakoak. 7 jokalar berri izango ditu.

“Beteranoen taldea utzi dute, eta lehenengo helburua taldea egitea da, jokalariek elkar ezagutu eta konektatzea. “Giro ona sortu da taldean. Gazteak dira gehienak, 23, 25, 26... urtekoak. Samba da zaharrena, 32 urterekin. Gehienak lakuntzarrak eta sakandarrak eta Iruñetik etorritako 4 jokalar. Bere garaian atezain izan zen Orrio ere itzuli da. Gustura gaude, denboraldia hasteko gogotan” gaineratu du Goikoetxeak.

Helburua ahalik eta denboraldi onena burutzea izango da, goiko postuetan sailkatzeko, aurten sortu berri den Kategoria Autonomikora igotzeko ligaxkara sailkatzeko. “baina oinak lurrean izan behar ditugu, zaila izango da. Iruñeko taldeak oso onak dira, kalitate handikoak eta preferentea oso lehiatua izango denaren sentazioa daukat. Gainera, aspaldiko partez derbya jokatzeko aukera izango dugu Etxarri Aranatzekin. Kontentua gaude igo direlako, oso ongi ezagutzen dugu elkar. Euren kontrako partidek zapore berezia izango dute” gehitu du Goikoetxeak.

Lagun Artea Futbol Klubak 6 talde

Preferenteko taldeaz gain, Lagun Arteak kadeteen mailako talde bat, haurren mailako talde bat eta kimuen mailako talde bat izanen ditu. Horiei Sakanako Futbol 8 Topaketetan arituko diren beste bi talde gehitu behar zaizkie. Hortaz, 6 talde izango dira guztira, 80-90 jokalar. “Gu bezalako herri txiki batendako balantzea oso ona da. Lakuntza eta gertuko herrietako jokalariek ditugu. Baina pena da jubenilen taldea ez izatea, preferenteko jokalar baseak izateko. Urte batzuk pasa beharko dira horretarako” ondorioztatu du

Lagun Artea, Etxarri eta Altsasu lanera

Preferente maila:

Bidezarra - Lagun Artea (Igandean, 17:00etan, Noainen)

Infanzones - Etxarri (Larunbatean, 16:15ean, Obanosen)

1. Erregional maila

Altsasu - Lagunak (Larunbatean, 17:30ean, Altsasun)

Kimuen Futbol 8 Topaketetan aritu nahi duzu?

Mank-eko Kirol Zerbitzuak 2015-2016 Futbol 8 Topaketak antolatu ditu, kimuen mailan. Bertan aritu nahi duten taldeek irailaren 22a dute izena emateko azken eguna, Mank-eko Kirol Zerbitzuan (948 464 866 edo kirolak@sakana-mank.com). Topaketa txapelketa moduan jokatu da baina ez da sailkapenik egingo, helburua txikiengana kirola sustatzea baita.

idazkariak.

Lagun Arteako juntan ez dago aldaketa nabarmenik. Carlos Ruiz de Erentxunek jarraitzen du presidente, Javier Hernandezek presidenteorde, Jesus Mari Goikoetxeak eta Migel Angel Aretak idazkari, Jose Mari Lanzek diruzain eta Javier Anduezak, Xabi Betelek, Juan Ignazio Mendietak, Diego Cruzek eta Oscar Maizak bokal. Azken bi hauek delegatuak dira. Jende gaztea juntan sartzea nahiko lukete “guk bizi guztia daramagulako eta jende gaztea behar delako” eta interesatu guztiak ateak zabalik dituztela gaineratu du Goikoetxeak.

Areto futbola

Magnak gaur etxean hasiko du denboraldia

Palma Futsal taldearen kontra jokatu du Anaitasuna pabilioian, gaur, ostiralean, 20:30ean

Lehen mailako Areto Futbol Txapelketako 2015-2016 denboraldia gaur ekingo zaio. Magna Gurpea Xotak Palma Futsal taldea

hartuko du gaur, ostiralean, 20:30ean, Anaitasuna pabilioian. Talde berdea denboraldia hasteko ilusio handiz dabil. Helburua ahalik eta hobekien lan egitea da, lehen 8 postuetan sailkatu eta play-offetarako sailkatzeko.

Magna Gurpearen aurkezpena



Asteartean 2015-2016 denboraldiko aurkezpena egin zuen Magna Gurpeak. Aurreko denboraldiko taldea ia osotasunean mantentzen du Imanol Arregi entrenatzaileak, soilik hiru baja izan baitira: Tolrá, Murga eta Mario. Horretaz gain, Javi Saldisek utzita jokatu du Zamoran. Bajak konpentsatzeko, hiru alta izan dira talde berdean: Araça –duela bi urte talde berdetik Qatar eta Azerbaijan aldera joan zena-, Rafa Usin –Magnatik aurreko urtean Barzelonara joan zen eta aurten talde berdera itzuli da, utzita– eta Tomoki Yoshikawa japoniarra. Haiekin batera Asier Llamas eta Raul Jimenez atezainak eta Victor, Jesulito, Carlitos, Roberto Martil, Dani Saldise, Eserverri eta Pablo Ibarra jokalariek ariko dira lanean, Imanol Arregi entrenatzailearen eta Migel Hernandez bigarren entrenatzailearen aginduetara. Talde berdetik Asier Llamas, Roberto Martil eta Dani Saldise dira irurtzundarrak, Imanol Arregi entrenatzailearekin eta klubeko presidente Tatono Arregirekin batera. Imanol Arregi entrenatzaileak azaldu zuen taldea “denboraldia hasteko gogo askorekin” dagoela. “Arerio gogorraren kontra hasiko dugu denboraldia, Palma Futsalaren kontra. Ongi ari gara entrenatzen, baina denboraldi hasieran beti duzu zerbait falta ote zaizunaren sentazio hori” azaldu zuen teknikariak. Denboraldia oso lehiatua izango dela aurreikusten du Imanolek. “Oso kontentua gure taldearekin. Arerio guztiak ere berrindatu dira eta azken hiru urteko ligarik lehiatua izango delakoan nago. Lehendabiziko 8 postuetan sailkatzeko lehia handia izango da. Gure plantilarekin kontentua nago, berrindatu garelako. Aurreko urteko plantila baina hobea dugu, baina aurreko urtekoa lortzea zaila izango da, aurreko denboraldia benetan denboraldi bikaina izan zelako” aitortu du Imanolek. Javi Eserverri kapitain beterranoak bere 21. denboraldiari ekingo dio talde berdearekin.

Kirolegia

Desfibriladore titulua birziklatzeko garaia

Desfibriladore titulua mantendu nahi dutenek derrigorrezkoa dute birziklatze ikastaroa egitea

Desfibriladoreak erabiltzen jakiteko lehenik eta behin ikastaro bat egiten da. Horrela, desfibriladore titulua eskuratzen da. Baina titulu horrek ez du behin betirako balio. Arautegi berriak dio 2 urteroko birziklatze ikastaro bat egin behar dutela desfibriladore titulua dutenek, titulu hori mantentzeko. Nafarroako Gobernuak osasun departamentuak emandako titulua daukaten guztiak Nafarroako Kirol Institutuak 4 orduko ikastaroa eskaintzen die Sakanan bertan, Lakuntzan, urriaren 19an, arratsalde, 16:30etik 20:30era.

Izena emateko

Sakanako Mankomunitatean (948 464 866 telefonoa edo kirolak@sakana-mank.com pos-



Desfibriladore ikastaro bat.

ta elektronikoa), irailaren 28a baino lehen. Prezioa: 10 euro.

Ikastaroan gehienez 24 parte-hartzaile onartuko dira, eta izena eman ahala tokiak betetzen joango dira. Tokia gordetzeko ordainketa agiria aurkeztu beharko da Sakanako Mankomunitatean izena eman ondoren (Euskadiko Kutxa, 3035 0116 93 1160003328). Beharrezkoa balitz itxaron zerrenda egingo litzateke.

Txirrindularitza

Altsasu Txirrindularitza Probak 86 urte

Asteartean 10:00etan jokatu da Sociedad Deportiva Alsasua elkarteak antolatutako proba, amateur mailako zaharrenetakoa. Larunbatean, 17:00etan, eskola mailako lasterketa hartuko du Altsasuk

Altsasuko festen azken egunean, asteartean, 86. Altsasu Txirrindularitza Proba antolatuko du Sociedad Deportiva Alsasua (SDA) elkarteak, Altsasuko Udalaren eta beste hainbat entitateen laguntzarekin. 23 urtez azpiko eta elite mailako txirrindulari afizionatuak bilduko dituen proba hau Euskaldun Torneorako baliagarria den azken proba izango da. Afizionatuen egutegian proba beterranoenetako bat da Altsasukoa, 86. edizioa baita jokatu dena. Goizeko 10:00etan hartuko du irteera afizionatuen mailako puntako txirrindulariak bilduko dituen probak.



Puntako etorkizuneko txirrindulariak arituko dira asteartean Altsasun.

Altamira hirutan eta Lizarraga bitan

Altsasuko probak ohiko ibilbideari eutsiko dio. Txirrindulariek 121 km dituzte aurrez aurre. Altsasutik aterata, Zegamako bidegurutzeraino joko dute lehenik eta behin, handik buelta hartu eta Altsasutik Altamira portua igotzeko. Altamira jaitsita Etxarri Arantzaino joko dute txirrindulariek, Lizarragako portua igo eta Arbuzutik jaitsita, atzera ere Altsasuraino heldu eta Altamiraraino jotzeko. Berririo ere Etxarri Arantzaino hurbilduko dira txirrindulariak, bigarrenaz Lizarraga igotzeko, eta atzera ere Altamiraraino gerturatuko dira, aipatu portua hirugarrenez igotzeko. Ondoren, Altsasura joko dute eta

helmuga Sociedad Deportiva Alsasua-aren egoitzaren parean egonen da, Alzania kalean.

Eskolako lasterketa larunbatean

Afizionatuen proba jokatu baino lehen, larunbatean, 17:00etan, eskolen mailako lasterketa jokatu da Altsasun, Zumalakarregi plazan. Lasterketak eta ginkana jokatu dira. Proba Burunda klubak antolatuko du. Aralar eta Burunda klubetako eskola mailako neska-mutikoak lanean ikusiko ditugu.

Aurreko larunbatean Ziordian izan zuten proba eskola mailako txirrindulariek. Aralar eta Burundako txirrindulariek ikuskizun bikaina eskaini zuten.

Erbiti Mundialetara

Vuelaren ondoren Richmondera: Espainiako Vuelta bukatu eta berehala, irailaren 19tik 27ra, Munduko Txirrindularitza Mundialak jokatu dira AEBetan, Richmonden (Virginia). Espainiako Txirrindularitza selekzioak 14 txirrindulari hautatu ditu, Movistarreko Imanol Erbiti tartean. Hiriberrikoak Alejandro Valverde eta Joaquín Rodríguez liderrendako eginen du lan.

Unehautetan Espainiako Vueltan dabil Erbiti, Quintana eta Valverde laguntzen eta Dumoulinek (Giant) eta Aruk (Astana) proba irabazteko duten borrokaren erdian.

Arku jaurtiketa



Munduko txapelketa

Abuztuaren 31tik irailaren 6ra bitartean Munduko 3D Arku Jaurtiketa Txapelketa jokatu zen Italiako Ternin. Hiriberriko Jose Luis Iriarte arku jaurtitzailak

bere taldekide Joaquín Merida eta David Garciarekin batera, Munduko txapelketa irabazi zuen, Danimarka eta Austria selekzioen gainetik.

Mendi lasterketak

7. Uharte Arakil-Beriain Km Bertikala ate joka

Irailaren 15era arte eman daiteke izena

Irailaren 20an jokatu da Uharte Arakil-Beriain Km Bertikala, igandearrekin, 10:00etan. Uharte Arakildik abiatuta Beriainera igotzea da helburua (5 km eta 1.023 m desnibel positiboa). Aurreko urtean 199 korrikalari lehiatu ziren, tartean 38 sakandar, eta Aitor Osak irabazi zuen, errekor berria ezarri (40:21). Izena ematea www.uhartearakil-beriaain.com web gunean egin behar da, irailaren 15era arte. 143 korrikalarik eman dute izena.

Olatzagutia-Urbanen izena ematea zabalik

Irailaren 26an jokatu da IX. Olatzagutia-Urbanen mendi lasterketa, 10:00etan (23,2 km, 1.367 m desnibel positiboa). Izena ematea zabalik dago irailaren 23ra arte www.olatzagutia-urbasa.net web gunean.



Moreno 10.a Usurben

Igandean Usurbeko igoera jokatu zen Beasainen (4,7 km). Aritz Egea izan zen azkarrena (21:14). Jabi Moreno altsasuarra 10.a sailkatu zen (25:10) eta Patxi Cano 12.a (25:38). Bestalde, larunbatean 336 korrikalarik osatu zuten, Hondarribin, 39. Guadalupeko Igoera. 4,7 km-ko mendiko lasterketa zen, Ander Sagarzak irabazitakoa (16:12). Etxarriarrak fin ibili ziren. Asier Estarriaga 125.a sailkatu zen (22:30), Kaxi Estarriaga 139.a (22:55) eta Maite Zabaleta 229.a (25:24).

Saskibaloia

“Streetball”-aren festa Altsasun

Larunbatean 9 talde lehiatu ziren lagun-talde batek antolatutako kaleko saskibaloitxapelketan

Eñaut Agirrebengoa

Joan zen larunbatean Altsasuko lagun-talde batek antolatutako “streetball” edo kaleko-saskibaloitxapelketa jokatu zen. Guztira 9 talde aritu ziren nor baino nor Intxostiapunta ondoan dagoen kantxan. Goizean ligaxkak (3 taldez osaturiko 3 multzo) jokatu ziren, eta ondoren, bazkalostean, kanporaketak. Finalurrekoak oso lehiatuak izan ziren, eta hala izan zen Arbizu eta Dos Hombres y Medio taldeen artean jokatu zen finala ere. Azkenean garaileak arbizuarrak izan ziren, talde iruindarrari soilik bi puntu-rengatik irabazita.

Antolatzaileetako bat den Alberto Hernandezek adierazi zuenez, egun osoan giroa paregabea izan zen, eta talde guztiak kiroltasunez jardun ziren. Edonola ere,



Arbizu taldekoek irabazi zuten Altsasuko Streetball txapelketa. E. AGIRREBENGOA

partehartze handiagoez espero zuela aitortu zuen: “Partaidetza uste baino txikiagoa izan da. Horretan garagardo azokak ziurrenik zerkusia izanen du, izen emandako

talde asko ez baitira agertu. Bestalde, datorren urtean txapelketa Intxostiako festetako programan sartzen saiatuko gara, horrela jende gehiago lortzeko”.

Saskibaloia

Zabaloren Planasak ezin izan zuten garaipena ospatu Altsasun

Zilarrezko mailako Iraurgi talde gipuzkoarraren kontra 70 eta 78 galdu zuten nafarrek

Asteartean aurre denboraldiko partida jokatu zuen ADECCO Oro mailako Planasa Navarra taldeak LEB Plata mailako Iraurgi SB talde gipuzkoarraren kontra. Partida Altsasuko Zelandi kiroldegian jokatu zen. Izan ere, Planasako jokalarien artean Iñigo Zabalo altsasuarra dago. Bi taldeak parez pare aritu ziren. Atsedendira Planasaren aldeko 51 eta 47 markagailuarekin iritsi ziren bi taldeak. Bigarren zatian talde nafararen erritmoak behera egin zuen eta bukaera aldera arbitroen erabaki gatazkatsu batzuk tartean, Planasa aukerarik gabe geratu zen, eta 70 eta 78 galdu zuen Zabaloren taldeak.

Atletismoa

Ergoienako Bira, irailaren 19an

Ergoienako Udalak antolatuta, irailaren 19an jokatu da Ergoienako XI. Bira, Sakanako Koparako baliagarria izango dena, 17:00etan hasita, Unanun. Lizarraga, Unanu eta Dorrao bitartean 8,5 km-ko proba izango da. Izena ematea egunean bertan egingo da.

Triatloia

Maiza 44.a II. Sestaoko Triatloian

Igandean II. Sestaoko Triatloia jokatu zen. 115 triatletek 1,5 km igerian, 34 km bizikletan eta 10 km korrikari osatu zituzten. Pello Osoro (1:49:26) izan zen txapelketa. Sakana Triatloi Taldeko Juan Luis Maiza 44.a sailkatu zen (2:14:10), bere beterranoen 2 mailan lehena.

kultura >>

TARIMA BELTZA ALLON: Larunbatean Castro Urdialesen *Nunca fuimos heroes* antzezlan eman ondoren, Tarima Beltza talde altsasuarra gaur, 21:30ean, Allon ariko da, 4. antzerki amateur erakustaldian.

Biguriren bakarrizketa

Gaur, 22:30ean, Olatzagutiko Barandi tabernan

Kike Biguri showmanak mikrofonoa hartuko du Olatzagutian bakarrizketa eskaintzeko. Ibilbide luzeko umoregilea *Así es la vida* izenburuko bakarrizketa eskainiko du; barre egiteko aitzakia emanen du. Izan ere, bere saioan Bigurik sexua, erditzeak, haur ipuinak, telebistako serieak, kirola, emakumeak eta gizonak, komunikazioa eta beste izanen ditu hizpide, aho bizarrik gabe. Eskarmentu handia du Bigurik. Aktorea hainbat telebista serietan paperen bat jokatu du: *Que vida más triste*, *Vaya semana*, *Escenas de matrimonio*, *Hermanos y detectives*, *Hombres de Paco*, *Museo Cocconut*...

Klik-aren atzean, saria

Irailaren 18an despidituko da www.guaixe.eus-en argazkiak aurkezteko epea

Guaixek 2015eko Sakanako Uda-ko Argazki Lehiaketa antolatu du. Sakandarrek euren udako argazkiak aurkeztu ditzakete lehiaketara. Horretarako, guaixe.eus web orriari atal berezia dago.

Bi sari banatuko dira. Epaimahaiak aukeratutako argazkiaren egileak Eroski Bidaiak emandako Turkiarako bi pertsonarendako bidaia eskuratuko du. Bestalde, irailaren 19tik aurrera 10 egun izanen dira sakandarrek euren gogoko argazkiaren alde bozkatzeko. Aukeratutako argazkiaren egileak Iruñeko Wayout Room Scape-erako bisarera eskuratuko ditu.



Barbarin Zapatilla gorridun mutikoa antzezlan prestatzen

Ados teatroa bere antzezlan berrian Burlatako kultur etxean prestatzen ari da agorriaren 24az geroztik. Zapatilla gorridun mutikoa du izenburua obrak eta lastailean aurre-estrenaldia egin nahi du konpainiak. Hura prestatzen Montse Zabalza Iriarte, Txori Garcia Uriz,

eta Jon Barbarin Lisarri aktore-akari dira, Garbi Losada eta Javier Asinen esanetara.

Publiko guztiei zuzendutako maskara hizkerako keinu-antzerkiko obra da Burlatan sortzen ari direna. Beraz, aktoreek emozio egoera bat gorputz keinuen bidez transmititu behar dute. +www.guaixe.eus

bazterretik

Jose Luis Asensio

Black is Beltza

Fermin Muguruzak proiektu berria sortzen duen bakoitzean, beti pizten du jakin-mina bere lana miresten dugunon artean. Normalean, musika izaten da garrantzitsuenak, baina oraingo honetan komikia dugu protagonista. Lana aurrera eramateko, Harkaitz Kano idazlearen eta DR. Alderete marrazkigilearen laguntza ezinbestekoa izan du Ferminek. Hiruren arteko elkarlanak sortu du Black is Beltza komikia, munduko toki ezberdinetan 60. hamarkadako iraultza kultural eta sozial ezberdinak ardatz duen kontakizuna. Istorioa Iruñeko erraldoiak New York-era bidaiatu zireneko anekdota du abiapuntutzat. Nik neuk ere ez nekien hori 1965. urtean gertatu zela, ez eta erraldoi amerikarrak (hau da, beltzak) Iruñean geratu zirela, Ipar Ameriketako gizarte zuria asaldatuko zelakoa. Testuinguru horretan Manex gure protagonistak, bazterketarekin ados ez dagoenez, bere iraganarekin lotuko duen bidaia haskeo erabakia hartzen du, bere aita brigadistaren pausoak nolabait jarraituz. Bere bidaiari, Ameriketako kultura beltzaren datuak aurkeztuko dizkigu lehenengo zatian. Mohamed Ali, James Brown, Malcom X... agertuko zaizkigu, Fermin Muguruzaren musikan eragina izan duen kulturaren deskribapena. Eta berehalakoan politikarekin ere nahastuko da dena, garai hartako iraultza ezkertiar ezberdinen elkarla-

nak eta eraginak azalduz. Che Guevara, Pantera Beltzak, Canadako iraultza, Argelia... Gure Manexek erlazonaturik dauden toki ezberdinetara bidaiatu beharko du, emandako hitza betetzeko. Bidean, eleberriri zaporea emateko edo, abentura sexualak, parrandak, atentatuak eta baita drogak ere azalduko zaizkigu. Interesgarria deritzot hiruren artean egindako lana, batez ere bildu diren datu interesgarriak direla eta, bai iraultza kulturei buruzkoak bai iraultza politikoei buruzkoak, baina kontakizunaren garapenean askotan etenaldi eta salto nabarmenak trakeski egiten direnaren sententzia geratzen zait irakurle bezala. Komikizalea izanda gogoz irakurri dut lana, baina nonbait piezaren bat falta zaio kontakizuna guztiz borobiltzeko. Ezin jakin marrazkigilearen falta den, ilustrazioetan bai baina komikietan esperientziarik ez duelako, edo eleberria sortzerakoan datu gehiegi sartu nahi izatean, kontakizuna herdoildu eta ez den normaltasunez sortzen. Hala ere, garai hartako kultura eta egoera sozialaren erradiografia bikaina deritzot, irakurtzeko oso interesgarria den komikia. Irailean, Iruñeko Gotorlekuko komiki topagunean erakusketa zabalik izango da Black is Beltza egiteko lan taldeak bildu duen dokumentazio askorekin. Bertan ikus-entzunezko materiala, marrazkiak eta dokumentuak ikusgai daude, komikiaren lehenengo zatia egiteko erabili zutena.

Kirola euskaraz

KIROL KASTARoen HIZKUNTZA ERABAKITZEKO JARRABDEAK

% 100

A talde tipologia

Ikasle guztiek ulertzen dute euskara

- >> Ikastaroa euskaraz izanen da.
- >> Ikasleei bakarka zuzentzean begiraleak beti errespetatuko du solaskidearen hizkuntza-aukera.

% 50 ↑

B talde tipologia

Ikasleen erdiak baino gehiagok ulertzen du euskara

- >> Ikastaroa nagusiki euskaraz izanen da.
- >> Begiraleak premiazkoa ikusten duenean, laburpena edo barkarkako azalpenak gaztelaniaz emanen dizkio euskaraz ongi ulertzen ez duenari.
- >> Ikasleei bakarka zuzentzean begiraleak beti errespetatuko du solaskidearen hizkuntza-aukera.

% 50 ↓

C talde tipologia

Ikasleen erdiak baino gutxiagok ulertzen du euskara

- >> Ikastaroa nagusiki gaztelaniaz izanen da, baina monitorea euskarari sarbidea emanen dio (agurrak, animozko hitzak, zenbakiak eta horrelakoetan).
- >> Euskara ulertzen dutenei bakarka zuzentzean euskaraz egiten die monitorea.

Mank
sakanak

Euskara Zerbitzua eta Kirol Zerbitzua

KANPAINAREKIN BAT EGIN DUTEN UDALAK: Irurtzun, Arakil, Arbizu, Etxarri, Altsasu eta Olazti.
BESTE UDALAK: bidean.

>> Altsasu

Data aldaketa mustuko duten festak

Lastaitetik irailera aldatu ziren festak 1930ean, feriei lotuta egongo gabe (14tik 17ra ospatu ziren). Ondoren festen hasiera irailaren 13an finkatu zuten. Eta aurten azken ohitura horren aldaketa heldu da.

Izan ere, martxoaren 29an egin-dako herri galdeketa altsasuarrek festak 14a eta asteburu bat hartzea erabaki zuten. Hala, gaur hasi eta astearte bitartean festa nagusi izanen da Altsasun.

Ospakizunei hasiera emateaz Koxka areto futbol taldeko kideak arduratuko dira, ez baitira alferrik Europako klubaren arteko UEFs Cup txapelketako txapeldunordeak. Ohiturari jarraituz, berez, Javier Olo

Martinez alkateari zegokion txupinazoa botatzea, baina ohorea delegatza erabaki zuen: "beti pentsatu dut ohore hau urtean protagonismo bereziren bat izan duen kolektibo edo pertsona batek izan behar duela".

>> Irailak 11, ostirala

10:30ean 2014ko kintari harrera eta zapien janzteia udeletxe parean.
10:30ean Hamaiketako gaztetxean. Peñen batzordea.
12:00etan Festen eztanda handia. Suziri jaurtiketa, ezkil-jotzea, Altsasuko gaita-jotzaileak, fanfarrea, dantzariak eta Peñen desfilea udeletxe parean. Ondoren Peñen txarangarekin kalejira.
16:30ean Peñen kafea eta kalejira, Foru Plazan
18:00etatik 19:30era Jokoak gaztetxean. AGA eta Peñen Batzordea.
19:00etatik 21:30era Dantzaldia Gaubela taldearekin, Foru Plazan.
19:30ean Japoniar bonben jaurtiketa eta buruhandiak, Foru Plazan.
20:00etan Peñen jaitsiera Zumalakarregi Plazatik abiatuta. 21:30ean iristea Foru Plazara
21:30ean Larrain Dantza Etxarriko gaita-jotzaileekin eta Altsasuko Zortzikoa Burundar Txistulariekin, Foru Plazan.
22:00etan Zezensuzkoa, Foru Plazan.
22:30ean XLVI. Otadiko Kristo Deuna pilota txapelketaren finala Burunda frontoian. Altsasuko Kirol Elkartek Udalaren laguntzarekin antolatuta.
22:30etik 00:30era Gazte Gauak, Lavaderon, Dj Aitor Lizarragarekin.
23:30etik 03:00etara Kontzertuak: Garabatos eta Txino Kudeiro taldeekin, Foru Plazan. Ondoren, Ttek Elektrotxaranga.
00:00etan Dj Gauak, Zubeztia Plazan. Herri Mugimendua.

>> Irailak 12, larunbata

9:00etan Dianak Haize Berriak bandarekin.
11:30ean Hamaiketako Zubeztia elkarate eskainia, Foru Plazan.
12:00etan Zirirka Zirkusen Tren geltokia antzezlan, Foru Plazan.
13:30ean Txo taldearen kontzertua, Foru Plazan.

15:00etan Herri bazkaria, kultur gune parean. Haize Berriak eta Kirol Elkartea. Ondoren Haize Berriak bandaren kontzertua.
16:30ean Peñen kafea eta kalejira, Foru Plazan.
17:00etan Eskolarteko txirindularitza proba, ginkana eta sari banaketa, Zumalakarregi plazan eta inguruan. Burunda TT.
19:30etik 21:30era Dantzaldia Txo taldearekin, Foru Plazan.
19:30ean Japoniar bonben jaurtiketa eta buruhandiak, Foru Plazan.
20:00etan Peñen jaitsiera, Zumalakarregi plazatik abiatuta. 21:30ean Foru plazara iristea.
20:30ean Salsakana taldearen emanaldia eta dantzaldia Kubako musikarekin, kultur gune parean.
21:30ean Larrain dantza Etxarriko gaita-jotzaileekin eta Altsasuko Zortzikoa Burundar Txistulariekin, Foru Plazan.
22:00etan Zezensuzkoa, Foru Plazan.
22:00etan Kontzertua: Desvarios Varios, Zubeztia plazan. Herri mugimendua.
22:30etik 00:30era Gazte Gauak Dj Aitor Lizarragarekin, Lavaderon.
22:30etik 00:30era Dantzaldia Txo taldearekin, Foru Plazan.
00:00etatik 02:00etara Peñen igoera, Foru plazatik Zumalakarregi plazara.
01:00etatik 03:00etara Rockalean elektro-txaranga, Foru Plazan.

>> Irailak 13, domeka

9:00etan Dianak Altsasuko gaita-jotzaileekin.
11:30ean Hamaiketako La Encina elkarate eskainia, Foru Plazan.
12:00etan Kaldereteak prestatzea, Foru Plazan. Herri mugimendua.
12:00etan Zirkua, Zubeztia plazan. Herri mugimendua.
12:30ean Erraldoien konpartsa, Altsasuko gaita-jotzaileekin lagunduta, Iortiatik.
13:00etan Trasteando taldearen kontzertua, Foru Plazan.

14:00etan Kalderete lehiaketa, Foru plazan. Herri mugimendua.
16:00etan Tokan 2 La Polla bikotearren kontzertua.
16:30ean Peñen kafea eta kalejira.
17:00etan Pilota jaialdi profesionala, Burunda pilotalekuan.
18:30ean Trokolo konpainiaren Chef chef antzezlan, Iortian.
19:30etik 21:30era Txutxin Ibañez eta bere mariatxiak, Foru Plazan.
19:30ean Japoniar bonben jaurtiketa eta buruhandiak.
20:00etan Peñen jaitsiera, Zumalakarregi plazatik abiatuta. 21:30ean Foru plazara iristea.
21:30ean Larrain dantza Etxarriko gaita-jotzaileekin eta Altsasuko Zortzikoa Burundar Txistulariekin, Foru Plazan.
22:00etan Zezensuzkoa.
22:30etik 00:30era Gazte Gauak Dj Aitor Lizarragarekin, Lavaderon.
22:30etan Kontzertuak: Los del Rayo eta Gozategi, Foru Plazan. Xurrut, Herri mugimendua eta Udala.
02:00etan Zunba, Zubeztia plazan. Herri mugimendua.

>> Irailak 14, astelehena

9:00etan Dianak Altsasuko gaita-jotzaileekin.
10:30ean Udaltzaren irteera, Altsasuko txistulariek lagunduta.
11:30ean Hamaiketako Amandrea elkarate eskainia, Foru Plazan.
11:30etik 14:30era Familiar disfrutatze-ko atrakzioak eta txu-txu trena, Zumalakarregi plazan.
12:00etan Azken ezkil-jotzea eta zortzikoa Altsasuko txistulariekin.
12:30ean Kiki, Koko eta Moko pailazoen ikuskizuna, Iortiatik zabalgunean.
13:00etan Big Bang Berri taldearen kontzertua, Foru Plazan.
13:00etan Sardina jatea, Zubeztia plazan. Herri mugimendua.
14:30ean Makarroi jatea bertsolariak

girotuta, Foru plazan. Peñak.
16:30ean Peñen kafea eta kalejira, Foru Plazan.
16:30etik 19:00etara Familiar disfrutatze-ko atrakzioak eta txu-txu trena, Zumalakarregi plazan.
17:00etatik 19:00etara Tirolina, kultur gune parean. Iñigo Aritza ikastola.
19:00etatik 21:30era Dantzaldia Edelweiss taldearekin, Foru Plazan.
19:30ean Japoniar bonben jaurtiketa eta buruhandiak, Foru Plazan.
20:00etan Peñen jaitsiera Zumalakarregi plazatik abiatuta. 21:30ean Foru plazara iristea.
21:30ean Larrain dantza Etxarriko gaita-jotzaileekin eta Altsasuko zortzikoa Burundar Txistulariekin, Foru Plazan.
22:00etan Zezensuzkoa.
22:30etik 00:30era Dantzaldia Edelweiss taldearekin, Foru Plazan.
22:30etik 00:30era Gazte Gauak Dj Aitor Lizarragarekin, Lavaderon.
22:30etik 01:30era Kantaitan afari-kontzertua, Zubeztia plazan. Afalondoa, Nafarroa Kanta taldearekin kantaitan.
00:30etik 04:00etara Dj, Foru Plazan.

>> Irailak 15, asteartea

9:00etan Dianak Altsasuko gaita-jotzaileekin.
11:30ean Hamaiketako Beti Jaten elkarate eskainia, Foru Plazan.
10:00etatik 13:00etara LXXXVI. Altsasu Txirindula Lasterketa, Altsasuko Kirol Elkartearen egoitzatik. Berak Udalaren laguntza antolatuta.
10:00etan Plater-tiroketa, Ulaiarko zabortegian. Erkuden ehiza eta arrantza elkarate.
12:00etan Herriko nagusiei omenaldia. Abardia jarriko zaie etxean, Txorongo Txarangak girotuta.
11:00etatik 14:00etara Jokoen trena, kultur gune parean.
12:00etan Munduko jolasak, Foru Plazan. Herri mugimendua, Gizarte Zerbitzua eta

Herri mugimenduen egitaraua

>> Irailak 11, ostirala

13:00etan Elkartasun brindisa.
15:00etan Elkartasun bazkaria. Gero Herriak Libre argazkia.
16:00etan Peñen kafea.
18:00etan Jokoak gaztetxean.
20:00etan Peñen jaitsiera.
00:00etan Dj Titti & Tery

>> Irailak 12, larunbata

16:00etan Peñen kafea.
20:00etan Peñen jaitsiera.
22:00etan Kontzertuak: Desvarios Varios eta Revolutionary Brothers.
00:00 Igoera.

>> Irailak 13, domeka

12:30ean Haurrendako zirko tailerra. Kaldereteen hasiera.
14:30ean Kalderete bazkari txapelketa.
16:00etan Peñen kafea. Kontzertua: Tokan 2 La Polla.
22:00etan Peñen jaitsiera.
22:00etan Kontzertuak plazan: Los del Rayo eta Gozategi.
02:00etan Zunba.

>> Irailak 14, astelehena

13:00etan Sardina-jana.
14:30ean Peñen bazkaria, makarroiak.
16:00etan Peñen kafea.
20:00etan Peñen jaitsiera.
22:00etan Kantaitan.

>> Irailak 15, asteartea

12:00etan Munduko jolasak.
13:00etan Munduko arrozen dastatzea.
16:00etan Peñen kafea. Ondoren elkarate poteoa.
20:00etan Peñen jaitsiera.
22:00etan Bokata-jana, Barry O'brain en monologoak girotuta.
00:00etan Guateke txupitada.
 Egunero karpan, bokatak eta jai giroa.

Immigrazio Zerbitzua.

13:00etan Bilboko txistularien kontzertua, Foru plazan.
14:00etan Munduko arrozak dastatzea. Bazkalondoa izanen duen bazkari irekia. Herri mugimendua, Gizarte Zerbitzua eta Immigrazio Zerbitzua.
14:00etan Nagusien omenezko bazkaria, Burunda pilotalekuan. Ondoren, 20:00etara, Dantzaldia Beti Jai bikotearrekin.
16:30ean Peñen kafea eta triki-poteoa.
17:00etan Play back txapelketa eta txokolate-jatea, Zumalakarregi plazan. Txokolata, Zubiondo elkarate.
18:30ean Japoniar bonben jaurtiketa eta buruhandiak, Zumalakarregi plazan.
20:00etatik 21:30era Motxila 21 taldearen kontzertua, Foru Plazan.
20:00etan Peñen jaitsiera Zumalakarregi plazatik abiatuta. 21:30ean Foru plazara iristea.
21:30ean Larrain dantza Etxarriko gaita-jotzaileekin eta Altsasuko zortzikoa Burundar Txistulariekin, Foru Plazan.
22:00etan Zezensuzkoa.
22:00etan Ogitarteko-jatea eta bakarriketak, Zubeztia plazan. Herri mugimendua.
23:30ean Festen agurra eta azken petardo-sorta, udeletxean. Ondoren Peñen kalejira.
00:00etan Goateka eta txupito-edatea, Zubeztia plazan. Herri mugimendua.

HIJOS DE GOIKOETXEA
EDARI BANATZAILEA

Patxarana
egiteko anisa

Ongi pasa festetan!

24° takoa

28° takoa

35° takoa

3 litroko botilak

Geltoki auzoa 11 • Altsasu
 948 467 317 • 696 979 279 • hijosdegoikoetxea@yahoo.es



Ogiaren artisauak
PORTUKO okindegia
 Ongi pasa festetan!

ETXARRIARANATZ: 948 460 988
 ALTSASU: Denda: 948 563 822 • Lantegia: 948 467 153

MAPFRE Altsasu
 jmappr@mapfre.com
 948 563 354 • San Juan 48 • ALTSASU

Ongi pasa festetan!

JOSE ANTONIO IMAZ PRIM

maríaeugenia
Arrainak
 www.pescaderiamariaeugenia.com
 Arratsalde zabalik

Festa onak izan!!!
 Unai: 607 804 316 / Olaia: 678 564 722
 El Ferial, 1 • 948 467 950 / Isidoro Melero • 948 467 725

OGI BERRI
 Altsasu

Ongi pasa festak!

>> Altsasu

Druida gunea, sustantzien azterketa eta informazioa banatzeko

Larunbatean, 23:00etatik 3:00etara, Foru plazan, Gure Etxea eraikinaren ondoan

Aurten ere Hegoak elkartearen Druida gunea Altsasuko festetan izanen da. Elkartearen furgone-

tara hurbiltzen denak kontsumitu nahi duen sustantziaren kalitatea aztertzeko utz dezake. Kontsumitu nahi den sustantziak bestelako konposatu toxikorik baduen aztertzen dute furgonetan. Horrela beste toxiko horien kontsumoa

saihestu daiteke. Eta, ondorioz, kontrako erreakzio saihesteko aukera izanen du erabiltzaileak, droga ezberdinen printzipio eragileen eta ezusteko konposatu menpe daudenak.

Furgoneta-laborategiak erre-

aktiboekin eta kromatografia-ekin hornitua dago. Han analisi zerbitzuak egiten dira eta pertsoneri arreta modu eroso eta lagunartekoan egiten zaie. Bestalde, Hegoak elkarteko kideek drogei eta droga kontsumoen

inguruko informazioa zabaltzeko materiala ere banatuko dute Druida gunetik. Burunda mendebaldeko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak halako zerbitzua festetan egotea "ezinbestekotzat" jotzen du.

Jai zoriontsuak izan!



HOTEL BAR RESTAURANTE
IRU-BIDE JATETXEA
Menua eta plater konbinatuak
948 468 876 · Gasteizko etorbidea · Altsasu

TABERNA BILTOKI JATETXEA

KARTA BOKATX BARRAN

Ongi pasa festetan!

FESTETXKO MENUA 25€ (BEZ BARNE)

SARRERAK AUKERAN	BIGARRENAK AUKERAN
<ul style="list-style-type: none"> Upategiko urdaiazpikoa Fritoak Patea Entsalada epela Baratzuri eta ganba nahaskia 	<ul style="list-style-type: none"> Legatza Ajoarrieroa Txahal buztana Entrekota Sahieskiak

POSTREA
URTEKO ARDOA edo URA
KAFEA

948 467 876 · Altsasu

Festetan egunero karta berezia



948 562 549
ALTSASU

Basomutur Erretegia

BETI BEZALA FESTAREN ERDIAN!



Kaixo
Kafetegia - Jatetxea

GARCIA XIMENEZ 20-22 TFNO. 948.46.91.24 ALTSASU

Biomasa galdarak
Estufak eta tximiniak
Geotermia eta aerotermia
Pellet salmenta

ORLEGHY
-RENOVABLES-

Ongi pasa festetan!

Telefona/faxa: 948 562 604
Gipuzkoa kalea, 17 · Altsasu
www.orleghy.com · info@orleghy.com

aek euskara praktikoa

Sakanako euskaltegi BERRIAN

Itsasi euskaltegia
Gartzia Ximenez 46, ALTSASU
Sakanako Mank: BEKAK
948 468 258
sakana@aek.eus

Eman izena
Epea: irailak 23

IRTEN EGUNEROKOTASUNETIK.

CITROËN C4 CACTUS. CROSSOVERRA KOLORE GEHIAGOREKIN.



CRÉATIVE TECHNOLOGIE ABC 2015 EKO ESPAINIAKO URTEKO KOTXEA

CITROËN C4 CACTUS PURETECH 82 FEEL EDITION
12.900€^{-REN TRUKE}

7"KO ESKUZKO PANTAILA
AIRBUMP BABESLEAK®
KLIMATIZATZAILE AUTOMATIKOA
6 AIRBAGS
17"KO ALEAZIO HAGUNAK

CITROËN
Festa onak izan!

8 URTE CITROËN ASISTENCIA Matxura eta istripuetan doako laguntza**

5 PIVE 8

KONTSUMO MIXTOA (L/100KM) / EMISION CO₂ (G/KM): CITROËN C4 CACTUS: 3, 1 - 4,7 / 82 - 107

AUTO TALLERES SAN MIGUEL S.A. • ALTSASU • 948 562 261 • IRURTZUN • 948 600 657 • www.autsanmiguel.com

G

asteko >> : eguraldia

	ostirala	larunbata	igandea	astelehena	asteartea	asteazkena	osteguna
euria: 8%	euria: 85%	euria: 35%	euria: 30%	euria: 15%	euria: 18%	euria: 68%	
Min: 11 Max: 25	Min: 13 Max: 18	Min: 12 Max: 21	Min: 11 Max: 18	Min: 11 Max: 23	Min: 14 Max: 24	Min: 12 Max: 19	

: temperatura>>

	Max. °C	Min. °C	euria l/m ²
Irurtzun	27	7.5	0
Etxarri A.	29.9	4.7	0.6
Altsasu	26	6.5	0
Aralar	19.2	4.6	2
Urbasa	-	-	-

: ilargiaren aldia>>

	ilberri	ilgora	ilbete	ilbehera
	13	21	28	4

EGOKI

VENTANAS PVC LEIHOAK

www.ventanasegoki.com

KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA

egoki@ventanasegoki.com

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti ERAKUSKETA: Olite kalea 16 · Iruñea

Acrylcolor

SISTEMA BERRIA

KOLOREA GEHIAGO ETA HOBE

Bazkide zozketa

IRAILEKO SARIAK:

1. SARIA:

Ekainberri kobazulorako, Donostiako Aquariumerako eta Artium museorako sarre-
rak, Lacturale lotea, Artazako kanpinerako deskontu balea, Gaztezulo aldizkarirako har-
pidetza eta Xotaren partidua ikusteko sarre-
rak.

2.,3. ETA 4. SARIA:

Donostiako Aquariumerako eta Artium museorako sarre-
rak, Lacturale lotea, Artazako kan-
pinerako deskontu balea, Gaztezulo aldizkarirako har-
pidetza eta Xotaren partidua ikuste-
ko sarre-
rak.

>> 11 galdera

Altsasuko Erraldoien Konpartsa

Testua: Eñaut Agirrebengoa Apaolaza



QR irakurgailuarekin kodea irakurri eta zure telefonoan eskuragarri izango duzu Altsasuko festen egitaraua. Bi aukera dituzu: lerroan kontsultatzea edo **ALTSASUKO FESTAK** aplikazioa jaistea (Android sistemarako).

jaitsi festa programa mugikorrera!

1.- Zein da Altsasuko Erraldoien Konpartsa bizi duen egoera?
 Duela 4 urte berriz ere erraldoiak kalera ateratzeari ekin genion. Garai hartan 11 pertsona ginen. Egun, egoera oso bestelakoa da: irteera guztietan ateratzeko konpromisoa soilik lau pertsonek daukagu. Kopuru hori ez da nahikoa; gauzak behar bezala egiteko gutxienez bi pertsona behar dira erraldoi bakoitzeko eta egoera jasangaitza da.

2.- Zein arrazoi daude kide kopuruaren jaitzieraren atzean?
 Erraldoien irteerak berreskuratzean, Peñekin konprometitutako hainbat pertsona sartu ziren konpartsan. Gure asmoa irteerak egiten hasi ahala pertsona hauei erreleboa ematea zen, baina azkenean ez zen hala gertatu. Orduan, jendea pixkanaka ateratzen joan zen.

3.- Orain pertsona bakarra zaudete erraldoi bakoitzeko. Horrek zertan eragiten du?
 Batetik, lau kideetako batek arazoren bat badauka irteera baten egunean, ezin ditugu lau erraldoiak atera. Bestetik, segurtasun aldetik ere eragin ezkorra dauka. Erraldoiaren barruan doan pertsonaren ondoan beste bat egotea gomendatzen da, inguruan izan ditzakeen oztopoez ohartarazteko eta erorketa bat ematen bada berehala laguntzeko.

4.- Konpromiso handia eskatzen du kide izateak?
 Urtean lau irteera egiten ditugu, eta bakoitza bi ordu ingurukoa iza-

ten da. Soilik irteeren aurreko azken bi asteetan elkartzen gara entseatzera, eta aste bakoitzean bi saio egiten ditugu. Beraz, ez dukonpromisorik apenas eskatzen.

5.- Baina erraldoia maneiatzen ikastea ez da erraza izango...
 Ez pentsa! Ez du ez aparteko indar ezta aparteko abileziarik eskatzen. Ordu batzuk sartu, erraldoia orekatzen ikasi, eta listo. Hasiberri bat bizpahiru egunetangai izan daiteke pare bat dantza egiteko.

6.- Sakanako beste herri batzuetan, Irurtzunen esaterako, erraldoien konpartsek osasuntsu diraute. Zein desberdintasun dago herri horien eta Altsasuren artean?
 Egia esan, ez dakigu zein alde dagoen herri batetik bestera. Olaztin bertan ere betidanik egon da erraldoien konpartsa, eta ez dute sekula hemen dugun arazorik izan. Hemen arazoa jendearen konpromiso faltan dagoela uste dut. Agian hor egonen da gakoa.

7.- Zer galduko luke Altsasuko herriak berriz ere erraldoien konpartsa desagertuko balitz?
 Galdera hori umeen gurasoei egin beharko litzaieke. Urtean egiten ditugun lau dantzaldiak desagertuko balira, umeek ez lukete aukerarik izango haien zat oso gustagarria den ekintza batez gozatzeko. Gainera, esan beharra dago erraldoiek karrikak asko animatzen dituztela festetako goizetan. Konpartsa desagertzen bada, herriak hori ere galdu egingo luke.

8.- Zer egin duzue egoera konpontzen saiatzeko?
 Erraldoien konpartsa berrabiaraztea Peñen ekimen bat izan zenez, orain bi kolektiboek batera dihardugu konponbide bat bilatzen. Gauzak horrela, Peñak ikasketxeetako gurasoen elkarrekin harremanetan jarri ziren, baina ez genuen erantzunik jaso. Ondoren, bi irteeratan panfletoak banatu genituen, konpartsan jendea falta zela azalduz. Eta, azkenik, egoera jasanezina zela ikusita, Festa Batzordearekin eta Udalarekin berarekin harremanetan jartzea erabaki genuen. Horrela, Udalak, Festetako programarekin batera, gure ohar bat argitaratu zuen.

9.- Zein da jasotako erantzuna?
 Momentuz lau pertsona interesatu dira, jada festa hauetan parte hartuko dutenak. Festen ostean kide gehiago lortzea espero dugu.

10.- Hortaz, aurtengo festetan erraldoiak ateratzea posible izanen da.
 Bai, nahiz eta kopuruz justu samar ibiliko garen. Zazpi edo zortzi lagunekin irteerak nahiko ongi egin daitezke, baina horietakoren bat ezin bada irten, arazoak izan ditzakegu.

11.- Eta festen ondoren zer?
 Zortzi bat kide izaten jarraitzen badugu, aurrera. Bestela, erraldoi bakoitzeko gutxienez bi pertsona ez baditugu, irteerak egiteari utziko diogu. Altsasuko herria urtebetez erraldoirik gabe gelditu behar bada, hala egingo dugu.